“Azken arau-aldaketa: 2026/07/18”

Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 FORU DEKRETUA, martxoaren 23koa. Honen bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena (BAO Martxoaren 30koa)

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren erakunde autonomiadunek diru-laguntzen arloan duten erreferentzia-esparrua da.

Arau honen aplikazio praktikoak agerian utzi du zehaztu, argitu eta garatu egin behar direla diru-laguntzak emateko prozesuaren alderdi zehatz batzuk. Bada, arauzko garapen honekin erantzun egin nahi zaie gabezia horiei guztiei; horrela, eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortu gura da diru-laguntzak emateko prozesuaren kudeaketan, bai eta diru-laguntzen lerro bakoitzak dituen xede zehatzak jadetsi ere.

Orobat, erregelamendu honetan jaso dira Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen zenbait alderdiri buruz beste xedapen arau-emaile batzuetan jasotzen ziren edukiak. Foru araua bera eta erregelamendu hau dira diru-laguntzak ematerakoan aplikatu behar den arau-euskarri orokorra, baina, edozelan ere, beharrezkoa denean, jardunbideak zehazteko administrazio-prozedurak garatuko dira, kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen laguntzeko betiere.

Azaldutakoa dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan emandako ahalmenak erabiliz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari aurkezten zaio foru dekretuaren proposamen hau, onar dezan:

FORU DEKRETUA.

Artikulu bakarra. Onestea Diru-laguntzen Erregelamendua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena.

Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da. Erregelamendu horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du, eta eranskin gisa gehituko zaio foru dekretu honi.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Gaikuntza.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari foru dekretu honetan zein horren bidez onesten den erregelamenduan ezartzen dena garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA
DIRU-LAGUNTZEN ERREGELAMENDUA, FORU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKO OROKORRA ARAUTZEN DUEN MAIATZAREN 31KO 5/2005 FORU ARAUA GARATZEN DUENA

ATARIKO TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

KAPITULUA
APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Xedea eta araubide juridikoa.

1. Erregelamendu honen xedea da garatzea Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzek honako manu hauen araberakoak izan behar dute: Diru-laguntzen Foru Araua, erregelamendu hau eta diru-laguntza bakoitza erregulatzen duten arauak.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan ezartzen dena aplikatuko zaie foru arau horren 3. artikuluan jasotzen diren subjektuetako edozeinek pertsona publikoen edo pribatuen alde egindako diru-xedapen guztiei, edozein dela ere xedapen hori eragiten duen egintza edo negozio juridikoaren izena, baldin eta diru- xedapenok Diru-laguntzen Foru Arauaren 2.1 artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

2. Bereziki, honako hauei aplikatuko zaie Diru-laguntzen Foru Araua eta erregelamendu hau:

   a) Foru Administrazioaren eta beste herri-administrazio batzuen, organismoen edo haien menpeko erakunde publikoen arteko diru-ekarpenak, arlo horretan betearazteko eskumen propioak dituen bakarra diru-laguntzaren onuraduna den herri-administrazioa, organismoa edo haren menpeko erakunde publikoa denean. Kasu horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren –dirulaguntza ematen duena– betebeharra izango da diru-ekarpen hori egitea beste alderdiaren alde. Ekarpen horren xedea izango da, berriz, funtsak hartuko dituen herri-administrazioaren eskumen propioen arloan dagoen edozein eginkizun, inbertsio, programa edo jarduera betetzeko finantzaketa ematea.

      Nolanahi ere, badago salbuespenik. Izan ere, egiten diren diru-ekarpenei ez zaie Dirulaguntzen Foru Araua eta erregelamendu hau aplikatuko, baldin eta diru-ekarpenon xedea bada aipatutako diru-ekarpenaren onuradunak lege baten edo foru-arau baten ondorioz nahitaez bete beharreko jarduerak finantzatzea.

   b) Dirulaguntzen Foru Arauaren 3. artikuluan jasotzen diren subjektuek egindako diru-ekarpenak, baldin eta zuzenbide pribatuaren menpeko pertsonek dagoeneko egin duten edo egingo duten jarduera bat osorik edo zati batean finantzatzeko betebeharraren ondorio badira eta, gainera, jarduera horren emaitza, materiala edo immateriala, zuzenbide pribatuko subjektuaren jabetza eta erabilera esklusiboaren ondorioa bada.

3. Honako hauek, berriz, ez daude Diru-laguntzen Foru Arauaren eta erregelamendu honen aplikazio-eremuan:

   a) Foru administrazioak foru sektore publikoa osatzen duten entitateei egiten dizkien diruzko ekarpenak, bai haien jarduna osotasunean finantzatzeko direnak, bai esleituta

dituzten eginkizunen esparruan jarduera zehatzak finantzatzeko direnak, betiere deialdi publiko baten ondorio ez badira.

b) Foru sektore publikoa osatzen duten entitateen arteko diruzko ekarpenak, bai haien jarduna osotasunean finantzatzeko direnak, bai esleituta dituzten funtzioen esparruan jarduketa zehatzak finantzatzeko direnak, betiere deialdi publiko baten ondorio ez badira.

c) Bizkaiko Foru Aldundiak edo foru sektore publikoa osatzen duten entitateek partaidetzaren gehiengoa Bizkaiko Foru Aldundiarena duten inbertsio-funtsei egindako diruzko ekarpenak.

d) Foru administrazioaren eta beste administrazio publikoen arteko diruzko ekarpenak, bai eta haien mendeko beste ente publiko batzuekin egiten direnak ere, baldin eta ekarpenak ente bakoitzaren jarduna —bakoitzari dagokion eskumen eremuaren barruan— osotasunean finantzatzeko badira. Kasu horietan, berariazko arau espezifikoetan xedatutakoa aplikatuko da.

Aurreko paragrafoetan ezartzen denerako, diru-ekarpenak jarduna osorik finantzatzeko direla ulertuko da, baldin eta ekarpenon helburua bada modu generikoan finantzatzea herri-administrazio baten edo horren menpeko erakunde publiko baten jardun guztia edo horren sektore bat osorik edo zati batean.

4. Zehazki, honako hauek ez daude Diru-laguntzen Foru Arauaren aplikazio-eremuan:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak beste herri-administrazio batzuekin izenpetzen dituen hitzarmenak, onuradunaren kargurako kontraprestazioa dakartenak.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak betearazteko eskumenak konpartituta dituen beste herri-administrazio batzuekin izenpetzen dituen hitzarmenak.

c) Ohiko edo ezohiko kuota gisa Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak nazioarteko erakundeei egiten dizkien diru-ekarpenak, modu generikoan finantzatzeko erakunde horien jardun osoa edo haren sektore bat osorik edo zati batean finantzatzeko.

3. artikulua. Gauzazko laguntzak.

1. Ematen diren ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak hirugarrenei emateko helburu bakarrarekin eskuratzen badira eta Diru-laguntzen Foru Arauaren 2.1 artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietako betekizunak betetzen badituzte, gauzazko laguntzatzat hartuko dira eta foru arau horren eta erregelamendu honen menpe geratuko dira, gauzazko laguntzen xedeak duen izaera bereziak dakartzan berezitasunekin.

2. Diru-laguntzen Foru Arauaren 31. artikuluan aurrekontuak kudeatzeko zehazten den prozedura ez zaio aplikatuko laguntza hauen izapidetzeari; nolanahi ere, diru-laguntza ordaintzeko eskatzen diren baldintzak (Foru Arauaren I. tituluko V. kapituluan jasotzen dira) ulertuko da laguntzaren xede den ondasuna, eskubidea edo zerbitzua ematen den uneari dagozkiola.

   Aurrekoa gorabehera, ondasun, eskubide edo zerbitzuak laguntzaren deialdia egin eta gero eskuratzen badira, Diru-laguntzen Foru Arauaren 31.1 artikuluan zehazten dena aplikatuko da, hau da, gastu hori laguntzaren deialdia egin baino lehen onetsi beharko da.

3. Gauzazko laguntza bat dela-eta laguntza hori itzuli egin behar dela deklaratzen bada, ondasun, eskubide edo zerbitzuaren eskuraketa-prezioaren zenbateko baliokide bat hartuko da, hain zuzen ere, jasotakotik itzuli beharreko zenbatekotzat. Nolanahi ere, Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen denaren arabera, beti eskatuko dira dagozkion berandutze-interesak.

4. artikulua. Kontraprestaziorik gabeko diru-emateak, zuzenbide pribatuak arautzen dituen Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren menpeko fundazioek edo zuzenbide publikoko erakundeek egindakoak.

1. Zenbait erakundek hirugarrenen alde kontraprestaziorik gabeko diru-emateak egiten badituzte, erakundeok Foru Arauaren 7.4 artikuluan ezartzen diren kudeaketa-printzipioak bete beharko dituzte: batetik, Foru Administrazioari loturik edo haren menpean dauden erakundeek, Diru-laguntzen Foru Arauaren 3.2 artikuluaren 1. lerrokadan zehazten direnek, administrazio-ahalmenak betearaziz jarduten ez dutenean; bestetik, Diru-laguntzen Foru Arauaren 3.2 artikuluaren 2. lerrokadan zehazten diren Foru Administrazioari loturik edo haren menpean dauden erakundeek, eta, azkenik, Foru Administrazioaren menpeko fundazioek.

   Emate horien emakida egiteko, erakundeak berak prestatutako prozedura jarraitu behar da, Diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan ezartzen diren erregelekin eta printzipioekin bat; prozedura horrek, betiere, honako alderdi hauek jaso behar ditu:

   a) Erabakia emateko organo eskuduna.

   b) Erabakiaren edukia; honako hauek beti jaso behar ditu:

      1. Diru-ematearen xedea, helburua eta baldintzak.

      2. Hartzaileek bete beharreko baldintzak.

      3. Aukeratzeko irizpideak.

      4. Ematearen gehieneko zenbatekoa.

   c) Lehia sustatzeko erabiliko diren publizitate-bideak eta deialdiaren edukiari buruz eman beharreko informazioa. Deialdia 300.000 euro baino gehiagokoa bada edo hartzaile bakoitzarentzako emate indibidualak 100.000 euro baino gehiagokoak badira, ez dira bakarrik erabili behar erakundeak erabili ohi dituen publizitate-bideak; izan ere, aurreko idatz-zatian aipatzen den erabakia Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean ere argitaratu behar da

   d) Eskabideak izapidetzea.

   e) Hartzaileak justifikatu behar du laguntza zertarako erabiliko duen.

2. Artikulu honen 1. paragrafoan aipatzen diren erakundeek Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.2 artikuluan zehazten diren kasuetan bakarrik egin ditzakete kontraprestazio gabeko diru-emate zuzenak.

5. artikulua. Diru-laguntzak eta kontraprestaziorik gabeko diru-emateak, partzuergo, mankomunitate eta beste pertsonifikazio publiko batzuek emandakoak.

1. Foru Administrazioek eta beste herri-administrazio batzuek edo haien menpeko erakundeek elkarrekin sortzen dituzten partzuergoek, mankomunitateek edo bestelako pertsonifikazio publikoek ematen dituzten diru-laguntzak Diru-laguntzen Foru Arauaren eta erregelamendu honen xedapenen arabera arautuko dira, artikulu honetan ezartzen diren baldintzetan.

2. Sortutako pertsonifikazioa Administrazio Zuzenbidearen arabera arautzekoa bada eta hura osatu duten erakunde publikoak ez badira herri-administrazio berekoak edo ez badaude herri-administrazio beraren menpe, Diru-laguntzen Foru Arauaren eta erregelamendu honen edukia aplikatuko da.

3. Sortutako pertsonifikazioa Zuzenbide Pribatuaren arabera arautzekoa bada, eta pertsonifikazio horien estatutuetan edo pertsonifikazioa sortzeko tresna juridikoan jasotzen diren aurreikuspenen arabera, pertsonifikazio horiek Diru-laguntzen Foru Arauaren 7.

artikuluan formulatzen diren printzipioak aplikatu behar dizkiete kontraprestaziorik gabeko ondasun-emateei. Nolanahi ere, diru-laguntza horiek estatutuotan edo beste tresna juridikoren batean jasotzen diren administrazio-ahalmenak erabiliz ematen badira, Diru-laguntzen Foru Arauaren eta erregelamendu honen arabera arautuko dira, artikulu honetako 2. paragrafoan ezartzen diren baldintzetan.

4. Herri-administrazioen artean izenpetzen diren lankidetza-hitzarmenen ondorioz administrazioek baterako jarduna egingo badute diru-laguntzen kudeaketan, hitzarmen horietan zehaztu egin behar da zein den herri-administrazio ezberdinen edo haiei lotutako edo haien menpeko erakundeen artean sortutako pertsonifikazio publikoei aplikatu beharreko araudia; horretarako, aurreko 2. eta 3. paragrafoetan ezartzen diren irizpideak jarraitu behar dira.

6. artikulua. Europar Batasunaren funtsen kontura finantzaturiko diru-laguntzen araubide juridikoa.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 6. artikuluan ezartzen denerako, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzak guztiz edo zati batean Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatu badira, diru-laguntzok Erkidegoko araudiaren eta araudi hori garatzeko edo horren transposizioa egiteko arauen arabera arautuko dira. Gainera, haien ordez, Diru-laguntzen Foru Arauan diru-laguntzak eman eta kontrolatzeko arautzen diren prozedurak aplikatuko dira.

2. Itzulketetarako eta arau-hauste eta zehapen administratiboetarako Diru-laguntzen Foru Arauan ezartzen den araubidea aplikatuko zaie, halaber, guztiz edo zati batean Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatu diren diru-laguntzen, baldin eta horrela egin behar bada Erkidegoko araudian ezarritakoaren arabera.

II. KAPITULUA.
DIRU-LAGUNTZA GUZTIETARAKO XEDAPENAK

ATALA.
DIRU-LAGUNTZETARAKO PLAN ESTRATEGIKOAK

7. artikulua. Printzipio zuzentzaileak.

1. Diru-laguntzetarako plan estrategikoek Diru-laguntzen Foru Arauaren 7. artikuluan aipatzen dira balio dute, hain zuzen ere, erabilera publikoa edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea eta helburu publiko bat bultzatzea xede duten politika publikoen plangintza egiteko.

2. Plan estrategikoek koherenteak izan beharko dute abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorraren testu bateginaren 36. artikuluan aurreikusitako urte anitzeko aurrekontu- programa eta-egoerekin, beraz, horien iraupenarekin bat datozen aurreikuspenak jasoko dituzte, salbu eta, ekonomia-, aurrekontu- edo prozedura-arrazoiak direla-eta, iraupen desberdina ezartzea komeni bada.

8. artikulua. Plan estrategikoen eremua.

1. Foru sail bakoitzak bere plan estrategikoa landu behar du, eta bertan jaso behar ditu bai sailak ematen dituen diru-laguntza propioak, bai eta sailari atxikitako erakundeek zein gainerako erakunde publikoek ematen dituztenak ere.

2. Nolanahi ere, plan estrategiko bereziak ere landu daitezke, saila baino eremu txikiagoa hartzen dutenak, baldin eta eremuaren garrantziak justifikatzen badu haientzako plan berezi bat garatzea. Sail askoren arteko plan estrategikoak ere egin daitezke, baldin eta haien kudeaketan hainbat foru sailek eta haiei atxikitako hainbat erakundek parte hartzen badute.

3. Plan estrategikoek erreferentzia-puntu legez balioko dute urteko aurrekontu orokorrak formalizatzeko eta kasuan kasuko aurrekontu-egoera eguneratzeko.

9. artikulua. Plan estrategikoaren edukia.

1. Plan estrategikoak lantzerakoan, besteak beste, honako atal hauek hartu behar dira aintzat:

   a) Helburu estrategikoak: planaren indarraldian zehar erakundeen ekintzarekin lortu nahi diren efektua eta eragina deskribatzen dituzte, eta kasuan kasuko aurrekontu-programetan zehaztutako helburuei lotuta egon behar dute.

      Helburu estrategikoetan genero-ikuspegia txertatuko da lortu nahi den efektuak eta eraginak emakumeen eta gizonen egoerari eragiten dienean.

   b) Helburu espezifikoak, zeinek helburu estrategikoak garatzen dituzten, adierazleen bidez neur daitezke eta helburu estrategikoak lortzen laguntzen dute.

   c) Helburu espezifikoak lortzeko egin beharreko ekintzak. Honako hauek barne hartuko dituzte:

      1. Abian jartzen diren ekintzek ukitutako sektoreak.

      2. Ekintzak garatzeko erabilitako tresnak eta mekanismoak.

      3. Ekintzaren aurrekontua eta finantzaketa-iturriak.

   d) Helburu desberdinak ebaluatzeko sistema. Horretarako, hainbat adierazle finkatu behar dira, genero-adierazleak barne, ezagutu ahal izateko zein den unean uneko egoera eta zein aurrerapen lortu diren diru-laguntza bakoitzaren helburuak betetzeari dagokionez.

   e) Aurreko plan estrategikoen eta haien genero-inpaktuaren ebaluazioaren emaitzak.

10. artikulua. Plan estrategikoak onartzeko eskumena.

Erregelamendu honen 8. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan ezartzen diren plan estrategikoak haiek betearazteko ardura duten foru diputatuek onetsi behar dituzte, eta Ogasun eta Finantza Sailari helarazi behar zaizkio, haien berri izan dezan.

11. artikulua. Diru-laguntzetarako plan estrategikoaren jarraipena.

1. Planak urtero eguneratu behar dira, eskuragarri dagoen informazio esanguratsuaren arabera.

2. Foru sail bakoitzak jarraipen-txosten bat landu behar du, non ebaluatuko duen plana zenbateraino bete den eta zein izan diren planaren aplikazioak aurrekontuan zein finantza-egoeran izan dituen efektuak eta ondorioak, eta planak zer genero-inpaktu izan duen.

3. Txosten hori, baita plan eguneratua ere, Ogasun eta Finantza Sailari bidali behar zaio, urte anitzeko aurrekontu-egoerak lantzeko edo eguneratzeko ezartzen diren epeetan, eta horretarako ezarritako prozedurak erabiliz.

4. Diru-laguntzen Foru Arauaren bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, Ogasun eta Finantza Sailak, bere kontrol-organoen bidez, plan estrategikoen jarraipena eta ebaluazioa egin ahalko du, bai sailaren beraren ekimenez, bai plan estrategikoak kudeatzen dituzten organoek eskatuta.

12. artikulua. Eskumenak eta eskumenen eskuordetzea.

1. Diru-laguntzak emateko organo eskudunak Diru-laguntzen Foru Arauaren 9. Artikuluan zehaztutakoak dira.

2. Zenbatekoak direla eta, diru-laguntzak emateko eskumena duten foru-organoei aplika dakizkiekeen eskumen-mugak Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorrean ezarritakoak dira.

3. Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.2 artikuluan jasotzen diren diru-laguntza zuzenak emateko arautegi erregulatzailea -hitzarmen bidez bideratuko dena- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak onetsi behar du beti, dagokion saileko foru diputatuak proposatuta.

   Nolanahi ere, diru-laguntza horiek diru-laguntza emateko ebazpenen bidez bideratzen direnean, diru-laguntzon araudia organo eskudunak onetsiko du, zenbatekoa dela- eta Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorrean ezartzen diren mugak aintzat hartuta.

4. Dirulaguntzen eta laguntzen oinarri arautzaileak eta zuzeneko dirulaguntzak emateko arautegiak ezartzen dituzten Bizkaiko Foru Aldundiaren foru dekretuek ahalmena eman diezaiekete proposamena egin duten foru diputatuei haietan xedatutakoa garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko, bai eta, hala badagokio, dagozkien dirulaguntzak edo laguntzak ematea ere, Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorrean araudi bidez ezartzen den mugaraino.

2. ATALA.
ONURADUNEI ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEI BURUZKO XEDAPENAK

13. artikulua. Zerga-betebeharrak betetzea.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 12.2.e) artikuluan ezartzen denerako, ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek egunean dituztela zerga-betebeharrak, baldin eta egiaztatzen badute zerga-araudiak horretarako ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela, eta betiere honako hauek betetzen badituzte:

   a) Aurkeztu beharreko autolikidazioak aurkeztuta izatea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari, Sozietateen gaineko Zergari edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagozkionak.

   b) Konturako ordainketak egiteko zerga-betebeharrari dagozkion autolikidazioak eta urteko laburpen-aitorpena aurkeztuta izatea.

   c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, zerga horren autolikidazioak, urteko laburpen-aitorpena eta, hala badagokio, Erkidego barruko eragiketei dagozkien laburpen-aitorpenak ere aurkeztuta izatea.

   d) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 92. eta 93. artikuluetan arautzen den betebeharra, informazioa ematekoa, betetzeko oro har eskatzen diren aitorpenak aurkeztuta izatea.

   e) Ez izatea ordainarazpen-aldian dagoen zerga-zorrik edo -zehapenik Foru Aldundiarekin, geroratuta edo zatikatuta dauden edo betearazpena etenda duten zerga-zor edo -zehapenak direnean izan ezik.

   f) Herri Ogasunaren aurkako delituen ondoriozko erantzukizun zibilak, epai irmoaren bidez deklaratutakoak, ez izatea ordaindu gabe.

2. Aurreko a), b) c) eta d) idatz-zatietan adierazitako inguruabarrak honako aitorpen eta autolikidazio hauei dagozkie: aurkezteko arauzko epea foru erregelamendu honen 16. artikuluan aipatzen den ziurtagiria eskatu aurre-aurreko hilaren aurreko hamabi hilabeteetan mugaeguneratu zaien aitorpen eta autolikidazioei.

13 bis artikulua. Berdintasunaren arloko betebeharrak betetzea.

Diru-laguntzen Foru Arauaren 12.2 artikuluaren h) eta i) letretan ezartzen denerako, ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek bete egiten dituztela berdintasunaren arloan dituzten betebeharrak, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak dituztenean, indarrean den berdintasunaren arloko arau-esparruaren arabera horretarako betebeharra duten heinean.

14. artikulua. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 12.2.e) artikuluan ezartzen denerako, ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek egunean dituztela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, baldin eta ez badute kuotengatiko zorrik edo kuotekin batera bildu beharreko kontzeptuengatiko zorrik, edo ez badute kotizatzeko betebeharra ez betetzearen ondoriozko zorrik edo ez badute izaera publikoko beste ezelango zorrik Gizarte Segurantzarekin.

2. Foru erregelamendu honen 17. artikuluan arautzen diren ziurtagiriei dagokienez, ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek egunean dituztela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, baldin eta haien zorrak geroratuta badaude, edo konkurtso-hitzarmen baten edo akordio berezi baten bidez erregularizatuta badaude, edo luzamenduan badaude, edo zor horiek etetea erabaki bada zorrak aurkaratu direlako.

15. artikulua. Zerga-egoitza.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 12.2.f) artikuluan ezartzen denerako, ezin izango dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan zerga-egoitza arau bidez zerga-paradisutzat harturiko herrialde edo lurralde batean duten pertsonak edo erakundeak, non eta ez diren Espainiako Administrazioaren organo aholku-emaileak, edo diru-laguntzaren izaera dela-eta haren arautegi erregulatzailean salbuespen hori ezartzen ez bada.

2. Horretarako, kontuan hartuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren urteko aitorpenaren zergaldiari dagokion egoera, aitorpen hori aurkezteko arauzko epea diru-laguntza eskatu den egunaren aurre-aurreko hilaren aurreko hamabi hilabeteetan mugaeguneratu den zergaldiari buruzkoa, hain zuzen; nolanahi ere, salbuespena egongo da, onuradunak zerga-egoitzaren aldaketa Foru Administrazioari laguntza eskatu duen egunaren ondoko beste egun batean deklaratzen dionerako. Dena dela, Espainiako lurraldeko egoiliarrak ez direnen kasuan, urteko aitorpena aurkeztu behar ez badute, diru-laguntza eskatu den egunaren aurreko hileko egoera hartuko da kontuan.

16. artikulua. Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 12.2.g) artikuluan ezartzen denerako, kasu bitan ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek egunean dituztela diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak: batetik, diru-laguntza ematen duen Administrazioarekin ez badute ordainarazpen-aldian dagoen diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko zorrik. Bestetik, haien aurka premiamendu-bidea erabili ezin den onuradunak edo erakunde laguntzaileak badira, berriz, borondatezko epean ordaindu gabeko zorrik ez badute.

2. Ulertuko da onuradunek edo erakunde laguntzaileek egunean dituztela diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak, baldin eta zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo zor horiek etenda badaude itzulketarako ebazpena aurkaratu delako.

17. artikulua. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga-egoitzari lotutakoak betetzen direla egiaztatzea.

1. Bide bi ditu eskatzaile batek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu ahal izateko. Batetik, eskatzaileak berak artikulu honetan arautzen diren

ziurtagiriak aurkez diezazkioke diru-laguntza ematen duen organoari. Bestetik, diru-laguntzarako eskaera kudeatzen duen organoak berak zenbait egintza egin ditzake, eskatzailearen egoera egiaztatzeko; izan ere, diru-laguntzarako eskabidea aurkeztearekin eskatzaileak baimena ematen dio organo emaileari, zuzenean lortu ahal izateko erregelamendu honen 13. eta 14. artikuluetan jasotzen diren inguruabarrei buruzko informazioa.

Nolanahi ere, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan horrela ezartzen bada, diru-laguntzarako eskabideak aurkezteak ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileari zuzenean egiaztatu ahal dezan erregelamendu honen 12. eta 13. artikuluetan jasotzen diren inguruabarrak betetzen diren, bai eta, horretarako, ziurtagiriak edo frogagiri baliokideak erabiltzeko ere.

Ziurtagiri horiek, batez ere, baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez lortuko dira, eta jatorrizko agirien balio eta eraginkortasun bera izango dute, betiere jasotako datuen benetakotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuta badago.

2. Zenbait kasutan ez dira aurkeztu behar erregelamendu honen 13. eta 14. artikuluetako inguruabarrak egiaztatzeko ziurtagiriak eta informazioak, hain zuzen ere, honako kasu hauetan:

   a) Erregelamendu honen 19. artikuluan zehaztutako kasuetan; ziurtagiri eta informazio horien ordez erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu ahalko da, baldin eta aukera hori berariaz jasotzen bada diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan.

   b) Diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan berariaz zehaztutako beste kasuetan.

3. Nolanahi ere, zerga-egoitza Espainiako lurraldean ez duten eskatzaileek beti aurkeztu behar dute zerga-egoitza egiaztatzeko ziurtagiria, egoitza duten herrialdeko eskudun agintaritzak emandakoa.

18. artikulua. Ziurtagirien ondoreak, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzea.

1. Ziurtagiriak bakarrik emango dira haietan jasotzen diren ondoreetarako, ez dute sortuko eskatzaileen edo hirugarrenen aldeko eskubiderik ez eskubide-igurikimenik, ez dituzte preskripzio-aldiak geldiarazi edo etengo, eta ez dute balio ziurtagirietan bertan aipa litezkeen prozedurak jakinarazteko bide gisa.

2. Behin ziurtagiria emanda, sei hilabeterako balioko du, ematen den egunetik zenbatuta.

3. Nolanahi ere, ziurtagirien edukiak ez die inoiz eragingo ondoren egindako egiaztapen- edo ikerketa-jardueren ondorioei.

19. artikulua. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko bidea erraztea.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeko erantzukizunpeko aitorpena -erregelamendu honen 17.2.a) artikuluan aipatzen da- aurkezteak, besteak beste, honako kasu hauetan sortuko ditu ondoreak:

1. Ikasleei emandako beken eta gainerako diru-laguntzen kasuan, berariaz erabiltzen badira lanbide hezkuntza arautuko ekintzak, prestakuntza-zentro publiko edo pribatuetan egiten direnak, finantzatzeko.

2. Ikertzaileei emandako bekak eta gainerako diru-laguntzen kasuan, ikerketa-proiektuak finantzatzeko helburua duten diru-laguntzen programetan ematen badira.

3. Diru-laguntzak, non deialdi batean onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa ez den 3.000 euro baino handiagoa.

4. Diru-laguntzaren izaera, araubide edo zenbatekoaren ondorioz behar bezala justifikatutako inguruabarrak gertatzen direla eta, Foru Aldundiak ezartzen dituen diru-laguntzen kasuan.

5. Herri-administrazioei emandako diru-laguntzen kasuan, bai eta haien menpeko erakunde publikoei eta fundazioei emandakoetan ere.

6. Gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko xedea duten diru-laguntzen kasuan, irabazizkoak ez diren erakundeei eta haien federazio, konfederazio edo elkarteei ematen bazaizkie.

20. artikulua. Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatzea.

Diru-laguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, onuradunaren edo erakunde laguntzailearen erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu behar da.

21. artikulua. Diru-laguntzen Foru Arauaren 12. artikuluan ezartzen diren gainerako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea.

Aurreko artikuluetan jasotzen ez diren kasuetan, onuradunek edo erakunde laguntzaileek erantzukizunpeko aitorpena aurkeztu behar diote diru-laguntza ematen duen organoari, Diru-laguntzen Foru Arauaren 12. artikuluan zehazten diren debeku-egoeretakoren batean ere ez daudela egiaztatzeko.

22. artikulua. Onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko debekua ezagutzea.

Onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko debekuak Diru-laguntzen Foru Arauaren 12. artikuluko 2. paragrafoaren a), b), d), e), f), g) eta h) idatz-zatietan zehazten dira, eta debeku horiek modu automatikoan ezagutuko dira, eta indarrean egongo dira, harik eta kasu bakoitzean debekuok sorrarazteko inguruabarrek dirauten bitartean edo epai edo ebazpen irmo bidez xedatzen den epean zehar.

23. artikulua. Debekuaren hedadura eta iraupena, debeku hori kontratuaren suntsiarazpenaren ondorioa denean.

1. Debeku hori Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoaren ondorioa bada, onuraduna edo erakunde laguntzailea erruduntzat jotako kausa bat dela eta; orduan, onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko debekuaren hedadura eta iraupena izango dira kontratatzeko debekurako ezartzen diren berberak.

2. Kontratatzeko debekua ezartzen duen ebazpenak, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduaren 19. artikuluan araututakoaren arabera, dirulaguntzak lortzeko debekuari buruzko erabakia ere eman beharko du.

24. artikulua. Diru-laguntzen eskatzaileen erregistroak.

1. Foru Aldundiak erregistroak sortu ahalko ditu, eskatzaileek, hala nahi izanez gero, haietan izena eman dezaten. Horretarako, haien nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dituzte, bai eta, hala badagokio, haien izenean jardungo dutenen ordezkaritza egiaztatzekoak ere.

2. Erregistro horiek emandako ziurtagiriak izanez gero, eskatzaileak ez dituzte deialdi bakoitzean aurkeztu beharko aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak, hau da, salbuetsita egongo dira, betiere inskribatutako datuetan aldaketarik egon ez bada.

3. ATALA.
PUBLIZITATEA

25. artikulua. Emandako diru-laguntzen publizitatea.

1. Lehia araubidean ematen diren laguntzak, gutxienez ere, haiek eman diren urte naturala amaitu osteko lehenengo hiruhilekoan argitaratu behar dira, Diru-laguntzen Foru Arauak argitaratzetik salbuesten dituenak edo lehendik argitaratuta daudenak izan ezik.

2. Ebazpen berean ematen badira bai banaka 3.000 euroko zenbatekoa gainditzen duten diru-laguntzak, bai eta zenbateko horretara ailegatzen ez diren diru-laguntzak ere; bada, orduan, argitalpenean honako hau zehaztu behar da: batetik, zein diren 3.000 euro baino gehiagoko diru-laguntzen banakako datuak, eta, bestetik, diru-laguntzaren arautegi erregulatzailearen arabera zein lekutan edo zein bitarteko erabiliz argitaratuko diren gainerako onuradunak.

3. Argitalpenean hauek jaso behar dira:

   a) Diru-laguntzen deialdia eta identifikazioa.

   b) Diru-laguntzak egotziko zaizkion aurrekontu-programa eta -kreditua.

   c) Europar Batasunaren funtsen konturako finantzaketa dagoela, eta, hala denean, finantzaketaren ehunekoa.

   d) Onuradunaren izena edo sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, diru-laguntzaren xedea edo xedeak, eta adierazi behar da, hala badagokio, zein izan diren diruz lagundutako programak edo proiektuak eta haietarako emandako zenbatekoa. Urte askotarako diru-laguntzak badira: guztira emandako zenbatekoa eta urtekoen banaketa.

26. artikulua. Onuradunak diru-laguntzaren publizitatea egitea.

1. Diru-laguntzen oinarri arautzaileetan ezarri behar da diru-laguntza baten onuradunak zein zabalkunde-neurri erabili behar dituen publizitate egokia emateko diru-laguntzaren xede den programa, jarduera, inbertsioa edo edozein motatako jarduketa finantzatzeko jaso duen diru-laguntzaren izaera publikoari.

2. Zabalkunde-neurriok diruz lagundutako xedearen araberakoak izan behar dute, hala erari nola iraupenari dagokionez. Neurriok betetzeko, erakunde emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendaren bat sartu ahalko da kartel, oroigarri plaka, inprimatutako material, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan edo komunikabideetan egiten diren aipamenetan.

   Diruz lagundutako programa, jarduera, inbertsio edo jarduketak beste finantzaketa-iturri batzuk baditu eta onuradunak egoera horren publizitatea egin behar badu, emandako diru-laguntzaren zabalkunderako neurriek eta haien garrantziak gainerako finantzaketa-iturriekin erabilitakoen antzekoak izan behar dute.

3. Betebehar hori bete ezean, eta Diru-laguntzen Foru Arauaren IV. tituluan aurrez ikusten den araubidea aplikatuz legozkiokeen erantzukizunak gorabehera, honako arau hauek aplikatuko dira:

   a) Oraindik ere posible balitz betebehar hori ezarritako baldintzetan betetzea, aurretik ezarritako zabalkunde-neurriak betetzeko eskatu beharko lioke organo emaileak onuradunari, 15 egun baino gutxiagoko epean, eta beren-beregi ohartarazi beharko luke ez-betetze horrek Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikulua aplikatuz izan litzakeen ondorioez. Organo emaileak aurreko tramite hori bete arte ezingo litzateke diru-laguntza ezeztatzeko edo itzultzeko erabakirik hartu.

b) Neurriok eragindako jarduerak dagoeneko burututa daudelako ezinezkoa balitz betebehar hori ezarrita dagoen bezala betetzea, organo emaileak ordezko neurri batzuk ezarri ahalko lituzke, betiere neurriok aukera emango balute jasotako finantzaketa publikoaren publizitatea hasieran adostutako neurrien hedadura berberarekin egingo dela. Organo emaileak onuradunari egiten dion errekerimenduan 15 egun baino gutxiagoko epea ezarri behar da bertan ezarritakoa betetzeko, eta, gainera, onuraduna beren-beregi ohartarazi behar da ez-betetze horrek Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikulua aplikatuz izan ditzakeen ondorioez.

4. ATALA.
JARDUEREN FINANTZAKETA

27. artikulua. Diruz lagundutako jardueretara finantzaketa propioa ere ekartzea.

1. Emandako diru-laguntza, oro har, eskatzaileak jarduerarako aurkeztutako aurrekontuari ehuneko bat aplikatuz lortuko da, edo, oinarri arautzaileetan horrelakorik ezarriz gero, aurrekontu horren ondorengo aldaketei ehuneko bat aplikatuz. Ehuneko hori erreferentzia gisa erabiliko da diru-laguntzak jardueraren amaierako kostuarekiko izango duen behin betiko zenbatekoa zehazteko. Kasu horretan, diru-laguntzaren behin betiko zenbatekoa zehaztean finantzaketa publikoarekiko egon daitekeen soberakina honela kalkulatuko da: aurreko ehuneko hori hasierako aurrekontuari aplikatuz lortzen diren zenbatekoei kendu egingo zaie behin betiko kostu osoa, diru-laguntzaren arautegi erregulatzailearen eta deialdiko baldintzen arabera.

2. Inguruabar bereziak gertatzen badira, hala diru-laguntzaren xedeari dagokionez nola onuradunei dagokienez, eta inguruabarrok justifikatzen badute diru-laguntzaren oinarri arautzaileek beren-beregi zehaztu behar dutela ekarpen publikoak zenbateko zehatz bat izan behar duela, ez dela egon behar, beraz, ehuneko edo zatiki baten arabera; bada, orduan, onuradunaren ardura izango da diruz lagundutako jarduera guztiz betetzeko beharrezkoa den finantzaketan egon daitekeen aldea lortzea, eta, horrela bada, bakarrik itzuli beharko da jardueraren kostua osoa gainditzen duen finantzaketa publikoa.

3. Aurrekoa gorabehera, behin betiko itzuli beharreko gehiegizko finantzaketa publikoa kalkulatzeko kontuan hartu behar da, gainera, erregelamendu honen 29. artikuluan adierazitakoa.

28. artikulua. Aldi berean lortutako diru-laguntzak jakinaraztea.

1. Jarduera edo proiektu baterako diru-laguntza eskatzen bada, eta aurretik beste bat eman bada, helburu bererako bateraezina dena, inguruabar hori agerrarazi behar da bigarren eskabidean.

   Kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpenak, hala denean, baldintza bat jarri behar du ebazpen horrek ondoreak izateko: onuradunak uko egin beharko dio (ukoa hurrengo paragrafoan aipatzen da) aurretik lortutako diru-laguntzei dagokienez, eta, gainera jaso dituen funts publikoak itzuli beharko ditu, halakorik jaso badu.

2. Onuradunak diru-laguntza berria lortzen duenean, horren berri eman behar dio lehenengo diru-laguntza eman zion erakundeari, eta horrek aldatu egin ahalko du diru-laguntza emateko erabakia, arautegi erregulatzailean ezarritakoaren arabera. Aldaketa egiteko erabakiak deklaratu dezake onuradunak guztiz edo zati batean galtzen duela emandako diru-laguntzarako eskubidea eta, hala badagokio, itzuli egin behar duela, arautegi erregulatzailean ezarritako baldintzetan.

3. Diru-laguntza itzultzea eskatu behar da, baldin eta Foru Administrazioak ezagutzen badu onuradun batek beste diru-laguntza bat edo beste batzuk jaso dituela, eman zaionarekin bateraezinak direnak, eta ez badu nahitaez egin beharreko ukoa egin.

29. artikulua. Jardueraren kostuaren gaineko gehiegizko finantzaketa.

Hainbat erakunde publikotatik jasotako diru-laguntzak bateraezinak badira eta diru-laguntza horiek beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuei batuz (eskatzen den finantzaketa propioa ere kontuan hartuko da) gehiegizko finantzaketa lortzen bada proiektuaren edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du soberakin hori, berandutze-interesekin batera, eta itzulketaren justifikazioari ordainketa-gutunak erantsi behar dizkio. Gehiegizko finantzaketaren itzulketa erakunde emaileen alde egin behar da, bakoitzak emandako diru-laguntzen heinean.

Nolanahi ere, Foru Administrazioa bada gehiegizko finantzaketaz ohartzen dena, gehiegizko finantzaketa osorik itzultzea eska dezake, berak emandako diru-laguntzaren mugarekin betiere.

5. ATALA.
BERMEAK

30. artikulua. Bermeen araubide orokorra.

1. Zenbait kasutan bermeak eratu behar dira, baldin eta oinarri arautzaileetan betebehar hori ezartzen bada. Bermeak, hain zuzen ere, oinarriotan zehazten den moduan eta atal honetan ezarritakoaren arabera eratu behar dira. Honako kasu hauetan eratu behar dira bermeak:

    a) Erakunde laguntzaileak aukeratzeko prozeduretan.

    b) Konturako ordainketak edo aurreratuak egiteko aukera aurrez ikusten denean.

    c) Onuradunek eta erakunde laguntzaileek beren gain hartutako konpromisoak betetzen direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen denean.

2. Eskatzaile bat baino gehiago dagoen prozeduretan, oinarri arautzaileek ezarri ahalko dute zenbait onuradunek ez dutela bermerik eratu beharko, baldin eta finantzatutako jardueren izaerak edo onuradunaren ezaugarri bereziek horrela egitea justifikatzen badute, baina betiere nahikoa bermatuta badago onuradunek bete egingo dituztela ezarri zaizkien betebeharrak.

3. Oinarri arautzaileetan beren-beregi besterik ezartzen ez bada, honako hauek ez dute bermerik eratu behar:

    a) Herri-administrazioak, haiei lotutako edo haien menpeko erakundeak eta administrazio horien menpeko merkataritzako sozietateak eta fundazioak.

    b) 3.000 eurotik beherako zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen onuradunak, artikulu honen 4. paragrafoan ezartzen diren kasuetan izan ezik.

    c) Herri-administrazioei edo haiei lotutako edo haien menpeko erakundeei kauzio, fidantza edo gordailurik aurkeztetik Legez salbuetsita dauden erakundeak.

    d) Irabazizkoak ez diren erakundeak eta haien federazio, konfederazio edo elkarteak, gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak garatzen badituzte.

4. Oinarri arautzaileetan besterik ezartzen ez bada, egoitza lurralde nazionaletik kanpo duten eta lurralde horretan establezimendu iraunkorrik ez duten pertsonek edo erakundeek beti eratu behar dute bermea.

1. AZPIATALA.
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK AUKERATZEKO PROZEDURETAKO BERMEAK

31. artikulua. Erakunde laguntzaileak aukeratzeko prozeduretako bermeak.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 15.4 artikuluan ezartzen denaren arabera, lankidetza kontratu bidez formalizatuko bada, administrazio-kontratazioaren arautegi erregulatzailean ezartzen den bermeen araubidea aplikatuko da.

2. Gainerako kasuetan, hau da, Diru-laguntzen Foru Arauaren 15.4 artikuluan ezartzen dena aplikatuz erakunde laguntzaileak publizitate, lehia, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen araberako prozedura baten bitartez aukeratu behar direnean, oinarri arautzaileetan kaudimena eta efikaziari buruz ezartzen diren baldintzez gainera, zehaztu ahalko da zein den aukeraketa-prozeduran parte hartuko dutenek eratu beharreko bermea.

   Oinarri arautzaileetan beren-beregi besterik ezarri ezean, bermeak eratzeko eta gordailatzeko bitartekoak eta berme horien hedadura administrazio-kontratazioaren arautegi erregulatzailean ezarritakoak izango dira.

   Haren alde bermeak eratu diren administrazioko agintaritzak berme horiek deuseztatzea erabakiko du aukeraketa-prozedura amaitu eta hamabost eguneko epearen barruan; nolanahi ere, aukeratutako erakundeak eratutako bermea lankidetza formalizatu arte atxiki ahalko da, eta, une horretan, hala badagokio, erregelamendu honen 39. artikuluan zehazten den hedadurarekin osatu beharko da.

   Aurreko epea amaitu eta bermea deuseztatzea erabaki ez bada, erregelamendu honen 38.4 artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

2. AZPIATALA.
ORDAINKETA AURRERATUETAKO ETA KONTURAKO ABONUETAKO BERMEAK

32. artikulua. Bermeak eskatzea konturako ordainketetan edo aurreratuetan.

Diru-laguntzen Foru Arauaren 19. eta 31.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan konturako ordainketak edo aurreratuak egiteko aukera jasotzen bada, oinarriok bermeen araubide bat ezarri ahalko dute emandako funtsentzat.

33. artikulua. Bermeen zenbatekoa.

Eratu beharreko bermearen zenbatekoak konturako ordainketaren edo aurreratuaren zenbatekoaren bestekoa izan behar du, eta zenbateko hori oinarri arautzaileetan ezartzen den ehunekoaren arabera gehitu behar da; nolanahi ere, ehunekoa ezin da inoiz zenbateko horren % 20 baino handiagoa izan.

34. artikulua. Bermeen hedadura.

Bermeekin erantzungo zaie bai kontura ordaindutako zenbatekoei edo aurreratutako zenbatekoei, bai eta haiei dagozkien berandutze-interesei ere.

35. artikulua. Bermeak eratzeko moduak.

Oinarri arautzaileek bermeak eratzea agintzen badute konturako ordainketen edo aurreratuen kasuan, bermeok diru-laguntza eman duen organoaren alde eratu behar dira, maiatzaren 17ko 53/1994 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean emandako fidantzen onarpen, erregistro eta zaintza baldintzak araupetzen dituena) zehazten diren modalitateetan eta bertan ezartzen diren baldintzekin.

36. artikulua. Hirugarrenek emandako bermeak.

1. Hirugarrenek aurkeztutako bermeak bakarrik onartuko dira fidatzaileak fidantza solidarioa ematen badu, eta beren-beregi uko egiten badio eskusio-eskubideari.

2. Abal-emailea edo aseguratzailea alderdi interesduntzat hartuko da emandako bermeari zuzenean eragiten dioten prozeduretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan.

37. artikulua. Bermeak betearaztea.

1. Organo emaileak itzulketa egin behar dela erabaki eta itzulketa hori borondatezko epean ordaintzeko jarritako epea igarota, bermea bahitzea eskatuko du organo horrek, Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan ezarritakoaren araberako zenbatekoan.

2. Ogasun eta Finantza Saileko Zerga-bilketako Zerbitzuak betearaziko ditu bermeok, organo eskudunak eskatuta, aurreratutako zenbatekoen itzulketa egiteko; horretarako, arautegi erregulatzailean ezarritako prozedura jarraituko du.

3. Bermea ez bada nahikoa aurre egin behar dien erantzukizunei erantzuteko, dagoen aldea kobratuko du Foru Administrazioak, eta premiamenduko prozedura administratiboak aurrera jarraituko du, diru-bilketari buruzko arauek ezartzen dutenaren arabera.

38. artikulua. Bermeak deuseztatzea.

1. Azpiatal honetan arautzen diren bermeak organo emailearen erabaki bidez deuseztatuko dira, honako kasu hauetan:

   a) Aurrerakinaren justifikazioa egokia dela egiaztatu ondoren; egiaztatze hori erregelamendu honen 69. artikuluan arautzen den bezala egingo da.

   b) Aurreratutako zenbatekoak Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren baldintzetan itzuli direnean.

2. Deuseztatzea erabakitzeko gehieneko epeak hauek dira:

   a) Hiru hilabete, aurrerakina itzuli zenetik edo likidatu zenetik.

   b) Sei hilabete, onuradunak aurkeztutako justifikazioa administrazioan sartu zenetik, eta administrazio horrek ez badu justifikazioaren egokitasunari buruzko erabakirik hartu edo itzulketarako prozedura hasi badu.

3. Epe horiek eten egingo dira aurkeztutako justifikazioaren inguruko errekerimendurik egin edo argibiderik eskatzen bada, eta errekerimendu eta argibide-eskaera horiei erantzun ondoren, berriz, epeok berrabiarazi egingo dira.

4. Foru Administrazioak bermeak mantentzeko kostua itzuliko du, kostu horren zenbatekoa egiaztatu eta gero, baldin eta bermeok interesdunari egozgarriak ez zaizkion arrazoiengatik luzatzen badira, artikulu honetako 2. paragrafoan zehazten diren epeak gaindituz. Kostuen itzulketa hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 32. artikuluan ezartzen denaren arabera egingo da.

3. AZPIATALA.
ONURADUNEK ETA ERAKUNDE LAGUNTZAILEEK BEREN GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK BETETZEKO BERMEAK

39. artikulua. Erakunde laguntzaileek beren gain hartutako konpromisoak betetzeko bermeak.

1. Oinarri arautzaileetan zehazten bada erakunde laguntzaileek bermeak eman behar dituztela, hitzarmenean jaso behar dira bermeok eratzeko bitartekoak zein deuseztatzeko prozedura; hitzarmen hori Diru-laguntzen Foru Arauaren 15. artikuluan arabera eratu behar da.

   Hala ere, lankidetza hori kontratu baten bidez formalizatzen denean, administrazio-kontratazioaren arautegi erregulatzailean aurrez ikusten diren bermeak aplikatuko dira, bai eta aurreko lerrokadaren arabera ezar litezkeenak ere.

2. Lankidetzaren barruan funtsak ematea edo banatzea sartzen bada, eta oinarri arautzaileetan horretarako salbuespenik ezartzen ez bada, bermea aurkeztu behar da, jasotako funts publikoaren zenbateko osoaren gehi dagozkion berandutze-interesen bestekoa. Interesok dira, hain zuzen ere, erakunde laguntzaileak funtsen aplikazioa justifikatzeko duen epea amaitzen denetik aurrerako sei hilabeteei dagozkionak.

3. Bermeekin honako hauei erantzun nahi zaie: erakunde laguntzaileek funts publikoei eman dien aplikazioari eta eska litezkeen itzulketei eta berandutze-interesei.

4. Erakunde laguntzaileek funts publikoei eman dien aplikazioa justifikatzeko duen sei hilabeteko epea igaro bada, baina ez bada bermea deuseztatzea erabaki, erregelamendu honen 38.4 artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Horretarako, epea etentzat joko da, justifikazioa osatzeko edo konpontzeko eskatzen bazaio erakunde laguntzaileari.

5. Justifikazio epeaz harago doazen konpromisoak hartzen badira, egoki iritzitako bermeak mantendu daitezke, oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintzetan, baina ezin dira inoiz ere honako hauek egin:

   a) Bermeok ezin dira konpromisoak erabat bete ondoren mantendu.

   b) Bermeen zenbatekoak ezin du bermatutako konpromisoa ez betetzeagatik itzuli beharreko zenbatekoa gainditu.

40. artikulua. Onuradunek beren gain hartutako konpromisoak betetzeko bermeak eta bestelako kautela-neurriak .

1. Bermeak beste modu batzuetakoak ere izan daitezke, eta ez bakarrik konturako ordainketak edo aurreratuak bermatzeko aurrez ikusten direnak; izan ere, hipoteka edo bahi eran ere eratu daitezke.

   Diru-laguntzaren arautegi erregulatzaileak kautelaz ezar lezake erregistro egokietan inskribatzeko betebeharra, edo beste edozein babes mota ere ezar lezake, baldin eta finantzatutako ondasun, inbertsio edo jardueren izaeraren arabera egokitzat jotzen bada. Erregistroko inskripzioak egiteko betebeharra ezarri ahal izateko, aukera hori beren-beregi onartu behar da erregistro horien arautegi erregulatzaileetan.

2. Bermeak eskatu ahal dira edo diru-laguntza emateko betekizun legez, edo ordainketak egiteko betekizun legez edo diru-laguntzaren justifikazioaren parte legez, eta haien helburua izango da onuradunaren betebeharrak betetzen direla bermatzea eta, bereziki, betebehar horiek mantentzen direla bermatzea.

3. Bermeok eratzeko modua, hedadura, egiaztatzea, deuseztatzea eta betearaztea oinarri arautzaileetan ezarri behar dira. Nolanahi ere, konturako ordainketetarako edo

aurreratuetarako bermeen itxura hartzen badute, atal honetako 2. azpiatalean ezartzen den araubidea aplikatuko da.

4. Artikulu honetan arautzen diren bermeak oinarri arautzaileetan eskatzen badira, baina ez badira eratu eta organo eskudunari ez bazaio eraketa hori egiaztatu, honako ondore hauetako bat sortuko da:

   a) Eskaera ezestea, bermea eratu dela egiaztatzea onuraduna izateko zehaztu ziren betekizunetako bat bada.

   b) Emandako diru-laguntzaren ordainketa atxikitzea, bermea eratu dela egiaztatzen den arte. Gainera, behin betiko gal daiteke diru-laguntza kobratzeko eskubidea, baldin eta organo emaileak aurretik egin badu bermea eratu dela egiaztatzeko errekerimendua, baina 15 eguneko epean ez bazaio errekerimendu horri erantzun.

5. Justifikazio epeaz harago doazen konpromisoak hartzen badira, egoki iritzitako bermeak mantendu daitezke, oinarri arautzaileetan ezartzen diren baldintzetan, baina ezin dira inoiz ere honako hauek egin:

   a) Bermeok ezin dira konpromisoak erabat bete ondoren mantendu.

   b) Bermeen zenbatekoak ezin du bermatutako konpromisoa ez betetzeagatik itzuli beharreko zenbatekoa gainditu.

I. TITULUA.
DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.
XEDAPEN OROKORRAK

41. artikulua. Diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia izapidetzea.

1. Oinarri arautzaileen eta deialdiaren baterako izapidetzea, fiskalizatu eta gero, Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, egintza bakarrean onetsi dezan.

   Oinarri arautzaileak eta deialdia bakoitza bere aldetik izapidetzen direnean, berriz, fiskalizatu eta gero Gobernu Kontseiluari helaraziko zaio, egintza bitan onetsi ditzan.

   Nolanahi ere, diru-laguntzak egozteko diren aurrekontu-kredituak oinarriak arautzen dituen dekretuan onetsi badira, deialdi hori diru-laguntza proposatzen duen saileko foru diputatuak onetsi ahalko du.

   Beste kasu batean ere onetsi ahalko du foru diputatu batek deialdi bat: deialdi batean soberan geratu den aurrekontu-krediturari irtenbidea emateko dekretu bidez erabakitzen denean beste deialdi bat egitea, eduki ekonomiko horrekin, hain zuzen.

2. Onetsitako dekretuetan justifikatzen bada diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoak estimatu baino ezin direla egin, orduan eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahalko dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako dekretu baten bidez, betiere kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa. Beharrezkoa bada, luzatu egin beharko da eskabideak aurkezteko epea.

42. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedurak.

1. Diru-laguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da; Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.1 artikuluan zehazten da prozedura hori.

   Aurrekoa gorabehera, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan salbuespen gisa jarri ahalko da ez dela eskatutako betekizunak betetzen dituzten eskaeren arteko lehentasun-

hurrenkerarik ezarri beharko, baldin eta deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada, eskabideak aurkezteko epea amaituta aurkeztu diren eskaeren kopurua kontuan hartuta.

2. Salbuespen gisa, diru-laguntzaren helburua edo izaera aintzat hartuta, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarri ahalko da funtsak eskaerak jaso ahala banatuko direla, lehia askean, eta deialdiaren edukia Diru-laguntzen Foru Arauaren 21.2 artikulua ezartzen denari egokitu beharko zaio, artikulu horretako l) idatz-zatian zehazten dena izan ezik.

3. Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.2 artikuluan zehazten diren kasuetan bakarrik eman daitezke diru-laguntzak zuzenean.

II. KAPITULUA.
DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA-ARAUBIDEAN ETA NORGEHIAGOKARIK GABEKO ARAUBIDEAN EMATEKO PROZEDURA.

43. artikulua. Gastuaren gehieneko zenbatekoa onartzea eta aurrekontu- kredituen artean banatzea.

1. Deialdian nahitaez zehaztu behar da zein den deitutako diru-laguntzetarako gehienez erabiliko den zenbateko osoa eta zein aurrekontu-krediturri egotziko zaizkion.

   Aurretik beste deialdi bat deitzen ez bada, ematen diren diru-laguntzek ezin dute gainditu deialdian zehaztutako gehieneko zenbateko osoa, hurrengo paragrafoan aurrez ikusten den kasuan izan ezik.

2. Salbuespen gisa, deialdian, kreditu erabilgarrien barruan dagoen gehieneko zenbateko osoaz gain, kopuru osagarri bat zehaztu ahalko da, eta kopuru hori dirulaguntzak emateko aplikatu ahal izateko, ez da beste deialdi bat deitu beharko. Kopuru osagarri hori finkatzeko eta erabiltzeko, honako arau hauek bete behar dira:

   a) Paragrafo honetan zehazten den kopuru osagarria ezarri ahalko da, baldin eta kopuru hori egotziko zaien kredituak ez badaude erabilgarri deialdia egiten denean, baina aurrez ikusten bada erabilgarri egongo direla diru-laguntzak emateko ebazpena eman aurreko edozein unetan, kopuru hori egotea kreditua honako hauen ondorioz gehitzearen arabera baitago:

      1.º Aurreko deialdietan hasieran aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko laguntza-eskaerak aurkeztu izana, prozedura bideratzeko izendatutako organoaren ziurtagiriaren arabera, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura,, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

      2.º Hasiera batean aurreikusitako gastua baino zenbateko txikiagoko aurreko deialdiak ebatzi izana, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

      3.º Aurreko deialdietatik eratorritako obligazioak aitortu edo likidatu izana, emandako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoarekin, betiere deialdiak aurrekontu-kreditu berberen kontura badira edo beste aurrekontu-kreditu batzuen kontura, baldin eta haien transferentzia erabakitzen baita abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren 69. artikuluko 1. eta 2. apartatuen arabera.

      4.º Erabilgarri dagoen aurrekontu-kredituaren zenbatekoan gehikuntza egotea, kreditua sortu, handitu edo eranstearen ondorioz.

b) Deialdian beren-beregi jaso behar da kreditu osagarri hori soilik izango dela eraginkorra baldin eta aitorpen bat badago kreditu erabilgarria arestian aipatutako inguruabarren ondorioz sortu dela adierazten duena, eta, hala badagokio, egin beharreko aurrekontu aldaketa diru-laguntza emateko ebazpenaren aurretik onartu bada.

3. Diru-laguntzaren deialdia egin aurretik, horretarako behar den gastu- espedientea izapidetu behar da, deialdian zehaztutako gehieneko zenbatekoaren bestekoa. Aurreko paragrafoaren arabera aurrez ikusi den zenbatekoari —horrelakorik egonez gero— dagokion kreditua erabilgarri dagoela deklaratu ondoren, dagokion gastu-espedientea izapidetuko da, erabilgarri deklaratutako zenbatekoaren bestekoa.

4. Diru-laguntzen gehieneko zenbateko osoa hainbat aurrekontu-krediturен artean banatzen bada eta banaketa horri beren-beregi ematen bazaio estimazio izaera, banaketa hori aldatzeko ez da beste deialdi bat deitu beharko, baina gastu-espedientean egin beharreko aldaketa guztiak diru-laguntza emateko ebazpena eman aurretik egin beharko dira.

5. Deialdi batzuetan, hain zuzen ere, aurreko paragrafoetan aipatzen diren mugen barruan deialdian bertan zenbateko osagarria zehaztu dutenetan edo zenbateko osoa hainbat aurrekontu-krediturен artean banatzeari beren- beregi estimazio izaera ematen diotenetan, organo emaileak erabilgarri dauden kredituen aitorpena eta behin betiko banaketa argitaratu behar ditu, hurrenez hurren, laguntzak emateko ebazpena eman baino lehen, deialdia argitaratzeko erabili diren bitarteko berberetan, eta publizitate horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.

44. artikulua. Deialdi irekia.

1. Deialdi irekia administrazio-egintza bat da, non aldi berean erabakitzen den aurrekontu-ekitaldi batean zehar ondoz ondo egiteko diren zenbait aukeraketa-prozedura batera egitea, diru-laguntzen lerro bererako betiere.

2. Deialdi irekian zehaztu egin behar da ondoz ondoko zenbat ebazpen eman beharko den, eta, horietako bakoitzerako, honako hau:

   a) Emango den gehieneko zenbatekoa.

   b) Prozedura bakoitza ebazteko gehieneko epea.

   c) Deialdi bakoitzean eskabideak aurkezteko dagoen epea.

3. Epe bakoitzean emango den gehieneko zenbatekoa zehaztuko da, hain zuzen ere, haren iraupenaren eta aurrez ikusitako eskaeren kopuruaren arabera.

4. Ebazpen bakoitzak epe bakoitzean aurkeztutako eskaerak alderatu behar ditu, eta laguntzak ematea erabaki, deialdi irekian ebazpen bakoitzerako finkatu den kopurua gainditu gabe.

5. Epe bakoitza amaituta, eman beharreko diru-laguntzak eman badira, baina ez bada emateko dagoen gehieneko zenbatekoa agortu, aplikatu gabe geratu den kopurua eman beharreko hurrengo ebazpenetara eraman ahalko da. Aukera hori erabili ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

   a) Oinarri arautzaileetan beren-beregi aurrez ikusi behar da aukera hori, eta bertan jasoko dira, halaber, erabili gabeko funtsak gainerako epeen artean esleitzeko irizpideak.

   b) Ebazpena eman ondoren, organo emaileak beren-beregi erabaki behar du zein zenbateko eramango diren beste epe batera eta zein epetan aplikatuko diren.

   c) Aukera hau erabiltzeak ez du inola ere ekarriko jatorrizko epean diru-laguntza eskatu zuten pertsonen eskubideei kalterik eragiterik.

45. artikulua. Diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean emateko prozeduretarako balorazio-irizpideak.

1. Eskabideak baloratzeko irizpideak diru-laguntzak norgehiagoka-araubidean emateko prozeduraren oinarri arautzaileetan jaso behar dira. Irizpide bat baino gehiago kontuan hartuz gero, zehaztu egin behar da zein den bakoitzari ematen zaion haztapen erlatiboa. Balorazio-prozedura hainbat fasetan egiten bada, adierazi behar da, orobat, zein fasetan aplikatuko den irizpide bakoitza eta zein den eskatzaile bakoitzari balorazio-prozesuan jarraitu ahal izateko eskatuko zaion gutxieneko puntuazioa.

2. Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla-eta ezin bada zehaztu aukeratutako irizpide bakoitzari esleitu beharreko haztapena, orduan pisu erlatibo bera emango zaie irizpide guztiei eskaeren balorazioa egiterakoan.

3. Oinarri arautzaileetan emakumeen eta gizonen berdintasunarekin, aurrerapen sozialarekin eta kolektibo gutxituei onura egitearekin, ingurumena hobetzearekin edo beste politika publiko batzuekin lotutako gaiak baloratu eta sustatzeko xedea duten irizpide edo alderdiak jaso behar dira, betiere, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritako helburuekin bat badatoz eta ez badira eurak dirulaguntzaren xede. Edozein kasutan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

   a) Irizpide horiek aukera eman behar dute Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatzen den diru-laguntzen kudeaketa arautzen duten publikotasunaren, gardentasunaren, lehiakortasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko.

   b) Era berean, irizpide horiek zehazki adieraziko dira, onuradun guztiek baldintza berberetan izan dezaten kontuan hartuko diren alderdien berri, eta modu homogeneoan interpreta ditzaten diru-laguntzen adjudikazio-irizpidea eta irizpide hori ebaluatzeko modua (objektiboa izan behar da).

   c) Irizpide horiek diru-laguntzak emateko fasean sartzen badira, ponderazio bat eman behar zaie oinarri arautzaileetan.

   d) Era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean den araudiak ezartzen dituen beste balorazio-irizpide sartuko dira berdintasunarekin lotuta, eta araudi horretan ezartzen den baremazio-portzentajea izango dute guztizkoaren gainean, salbu eta genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioaren prozedura egiterakoan ezartzen bada generoaren ikuspegitik ezer nabarmengarririk ez dagoela.

   e) Diru-laguntza ematen duen organoak erabaki dezake, salbuespenez, diru-laguntzaren ezaugarriak ez direla egokiak diru-laguntzetarako prozeduretan irizpide hauek sartzeko: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna baloratu eta sustatzeko xedea dutenak, eta aurrerapen sozialari, ingurumena hobetzeari edo beste politika publiko batzuei buruzkoak. Horrelakoetan, justifikatu egin beharko da zergatik ez den komeni irizpide horiek sartzea, espedienteari erantsiko zaion txosten arrazoitu batean.

46. artikulua. Onuradunak egin beharreko jarduera zehaztea.

Diru-laguntzaren xedea bada onuradunaren jarduera jakin bat sustatzea, onuradunak jarduera hori egiteko konpromisoa izango du, eskabidean zehaztutako baldintzetan; hala ere, Foru Administrazioak diru-laguntza emateko prozeduran edo betearazteko epean zehar onartutako aldaketak egin ahalko ditu, halakorik onartu bada, betiere aldaketa horiek ez badute diru-laguntzak ematerakoan lortu gura den xedea aldatzen. Nolanahi ere:

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 25. artikuluaren arabera, Foru Administrazioak eskaerak berriro egiteko aukera proposatzen badio onuradunari, eta onuradunak ez badu erantzuten Administrazioak emandako epean, hasierako eskaeraren edukia mantenduko da.

2. Diru-laguntza emateko prozeduran zehar, Foru Administrazioak proposatzen badu eskatzaileak proposatutako jarduera egiteko baldintzak edo modua aldatzea, orduan onuradunari eskatu behar dio diru-laguntza onartzea. Onarpen hori emandakotzat joko da, baldin eta baldintza horiek zehatz-mehatz adierazten badira aldaketarako proposamenean eta hura jakinarazten zaionetik zenbatutako hamabost eguneko epean onuradunak ez badu adierazten haren aurka dagoenik, eta, betiere, hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez bazaie.

47. artikulua. Ebazpenaren edukia.

Diru-laguntza emateko ebazpenean argi eta garbi identifikatu behar dira onuradunek hartzen dituzten konpromisoak. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta hura jasotzea onuradunak berak proposatutako jarduera egitearen menpe badago, berriz, argi eta garbi identifikatu beharko da proposamen hori edo hura egiteko erabili zen agiria.

48. artikulua. Ebazpena.

1. Diru-laguntza emateko prozedura organo eskudunak ebatziko du, ebazpenerako proposamena egiten zaion egunetik zenbatutako hamabost eguneko epean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan eta, hala badagokio, dagokion arauan edo deialdian aurreikusitakoaren arabera.

2. Ebazpen bidez erabakiko da bai diru-laguntza ematea, bai eta haiek ukatzea eta ez ematea ere, atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo bat-batean gertatutako ezintasun materialengatik. Diru-laguntza emateko ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, Legean edo kasuan kasuko oinarri arautzaileetan ezarritako kasuetan izan ezik.

3. Oinarri arautzaileetan horrela zehaztuz gero, diru-laguntza emateko ebazpenean, laguntza ematen zaien onuradunen zerrendaz eta gainerako eskaeren berariazko ukoaz gain, beste zerrenda bat jaso ahalko da. Bertan, hurrenkeran jarrita agertuko dira oinarri arautzaileetan onuraduna izateko zehazten diren baldintza administratibo eta tekniko guztiak bete arren deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu delako onartu ez diren eskaera guztiak, eta deialdian ezarritako balorazio-irizpideen arabera bakoitzari eman zaion puntuazioa adieraziko da.

   Kasu horretan, onuradunetako batek diru-laguntzari uko eginez gero, organo emaileak beste deialdi bat deitu beharrik izan gabe erabakiko du diru-laguntza ematea puntuazio hurrenkeran hurrengo dagoen edo dauden eskatzaileei, betiere onuradun batzuek uko egitearekin kreditu nahikoa geratu bada libre, gutxienez ere ukatu diren eskaeretako bati aurre egiteko.

   Diru-laguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, diru-laguntzarako proposamena onar dezaten, hamar eguneko epean; epe hori ezin da luzatu. Eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu eta gero, administrazio-organoak laguntza emateko egintza emango du eta hura jakinaraziko du, Diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan zehazten diren baldintzetan.

49. artikulua. Ebazpena aldatzea.

1. Diru-laguntza emateko ebazpena eman eta gero, onuradunak haren edukia aldatzea eska dezake, betiere oinarri arautzaileetan bertan jasotzen bada zein inguruabarretan aldatu ahal izango liratekeen diru-laguntzak, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz. Hirugarrenen eskubideei kalterik eragiten ez dienean bakarrik onartu ahalko da aldaketa hori.

2. Horretarako eskabidea jarduera egiteko dagoen epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da.

III. KAPITULUA.
DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK EMATEKO PROZEDURA

50. artikulua. Aurrekontuetan norbaiten izenean aurrez ikusita dauden diru-laguntzak emateko prozedura.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.2.a) artikuluan ezartzen denerako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurrez ikusita dauden diru-laguntzak dira aurrekontuaren gastu-egoeran berariaz zehaztuta dituztenak diru-laguntzaren xedea, aurrekontuko zuzkidura eta onuraduna.

2. Foru Administrazioan eta beraren menpeko organoetan, diru-laguntzok emateko arautegi zehatzik ez badago, diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan zehaztutakoa aplikatuko zaie diru-laguntza horiei, foru arauan zein erregelamenduan zehaztutakoak publizitate eta lehia printzipioen aplikazioari eragiten dien ataletan izan ezik.

3. Diru-laguntza hauek emateko prozedura bere kabuz hasiko du diru-laguntza egozten zaion aurrekontu-kredituaren organo kudeatzaileak, edo, bestela, interesdunak eskatuta, eta amaitu, berriz, emateko ebazpenarekin edo hitzarmenarekin amaituko da.

   Paragrafo honetan jasotzen diren kasuetako edozeinetan, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera diru-laguntzak emateko oinarri arautzailetzat joko dira, Diru-laguntzen Foru Arauan ezartzen denerako, eta erregelamendu honen 12. artikuluan ezartzen denaren arabera onetsi beharko dira.

   Ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak, gutxienez, honako hauek jaso behar dituzte:

   a) Diru-laguntzaren xedea eta haren onuradunak, egindako aurrekontuko esleipenaren arabera.

   b) Gastua egozten zaion aurrekontu-kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa; onuradun bat baino gehiago badago, zenbateko hori banakatu egin behar da.

   c) Xede bererako jasotako gainerako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide guztiak, Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakunde bateko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk emandakoak, diru-laguntza hauekin bateragarriak diren ala ez.

   d) Diru-laguntza ordaintzeko dauden epeak eta moduak; ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera dagoen ala ez; bai eta onuradunak aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere, halakorik badago.

   e) Onuradunak duen epea eta modua justifikatzeko, batetik, diru-laguntza emateko izan zen helburua bete duela, eta, bestetik, jasotako funtsak horretarako aplikatu dituela; justifikazio hori egiteko, erregelamendu honen II. tituluaren II. kapituluan jasotzen diren modalitateetako edozein erabil daiteke.

   f) Diru-laguntza baten onuradunak diru-laguntzaren xede den programa, jarduera, inbertsioa edo edozein motatako jarduketa finantzatzeko jaso duen diru-laguntzaren izaera publikoari publizitate egokia emateko erabili behar dituen zabalkunde-neurriak, erregelamendu honen 26. artikuluaren arabera, horrelako neurririk erabili behar izanez gero.

   g) Onuradunak diru-laguntza bere ekimenez itzuli ahal izateko dituen bitartekoak, erregelamendu honen 76. artikuluaren arabera.

51. artikulua. Lege-mailako arau batek behartuta Administrazioak zuzenean eman beharreko diru-laguntzak.

1. Lege-mailako arau batek ezartzen badio Administrazioari zenbait diru-laguntza zuzenean eman behar dituela edo diru-laguntza horien zenbatekoa, diru-laguntza horiek arau horren eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharreko gainerako arauen arabera eraenduko dira.

   Foru Administrazioan eta beraren menpeko organoetan, eta arautegi horretan zehazten ez diren kasuetan, ordezko gisa aplikatuko da Diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan zehaztutakoa; foru arauan zein erregelamenduan zehaztutakoak publizitate eta lehia printzipioen aplikazioari eragiten dien ataletan izan ezik.

2. Diru-laguntza ematea behartzen duen lege-mailako araua ebazpen bidez instrumentatzen bada edo, hala denean, erakunde emailearen eta onuradunen arteko hitzarmen bat formalizatuz, erregelamendu honen 50.3 artikuluan ezartzen dena aplikatuko zaie.

3. Artikulu honetan aipatutako diru-laguntzen ordainketa galdagarria izan ahal izateko, dagokion ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da.

52. artikulua. Zuzenean emateko diru-laguntzak, haien deialdi publikoa egiteko eragozpenak dituztenak, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuengatik.

1. Salbuespen gisa, zuzenean eman ahalko dira Diru-laguntzen Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan zehazten diren diru-laguntzak.

   Foru Administrazioan eta beraren menpeko organoetan, Diru-laguntzen Foru Arauan eta erregelamendu honetan zehaztutakoa aplikatuko da; foru arauan zein erregelamenduan zehaztutakoak publizitate eta lehia printzipioen aplikazioari eragiten dien ataletan izan ezik.

2. Diru-laguntza hauen berariazko oinarri arautzaileak onetsiak, erregelamendu honen 12. artikuluan zehazten denaren arabera; arauok, gutxienez, honako hauek jaso behar dituzte:

   a) Diru-laguntzen izaeraren definizioa: diru-laguntza bereziak direla adierazi behar da eta zehaztu behar da, halaber, zein diren diru-laguntzon deialdi publikoa egiteko eragozpenak sortzen dituzten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuak edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoiak.

   b) Gastua egozten zaion aurrekontu-kreditua eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

   c) Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

   d) Onuradunak eta laguntzaren modalitateak.

   e) Xede bererako jasotako gainerako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide guztiak, Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakunde bateko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk emandakoak, diru-laguntza hauekin bateragarriak diren ala ez.

   f) Diru-laguntza ordaintzeko dauden epeak eta moduak; ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera dagoen ala ez; bai eta onuradunak aurkeztu beharreko bermeen araubidea ere, halakorik badago.

   g) Onuradunak duen epea eta modua justifikatzeko, batetik, diru-laguntza emateko izan zen helburua bete duela, eta, bestetik, jasotako funtsak horretarako aplikatu dituela; justifikazio hori egiteko, erregelamendu honen II. tituluaren II. kapituluan jasotzen diren modalitateetako edozein erabil daiteke. Justifikaziorik aurkeztu behar ez bada, arrazoitu behar da horretarako inguruabar bereziak daudela, hala diru-laguntzaren xedeari dagokionez nola onuradunei dagokienez.

h) Diru-laguntza baten onuradunak diru-laguntzaren xede den programa, jarduera, inbertsioa edo edozein motatako jarduketa finantzatzeko jaso duen diru-laguntzaren izaera publikoari publizitate egokia emateko erabili behar dituen zabalkunde-neurriak, erregelamendu honen 26. artikuluaren arabera, horrelako neurririk erabili behar izanez gero.

i) Onuradunak diru-laguntza bere ekimenez itzuli ahal izateko dituen bitartekoak, erregelamendu honen 76. artikuluaren arabera.

3. Espedientean, gainera, gaia dela-eta diru-laguntzok kudeatzeko eskuduna den organoaren txosten bat jaso behar da, eta bertan justifikatu behar dira diru-laguntza bereziak direla, bai eta diru-laguntzon deialdi publikoa egiteko eragozpenak sortzen dituzten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuak edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoiak ere.

II. TITULUA.
DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO PROZEDURA

I. KAPITULUA.
AZPIKONTRATAZIOA

53. artikulua. Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa.

1. Onuradunak betebehar pertsonala du diruz lagundutako jarduera egiteko, eta horretarako salbuespen bakarrak izango dira oinarri arautzaileetan ezartzen direnak, Diru-laguntzen Foru Arauaren 27. artikuluan eta erregelamendu honetan finkatzen diren mugen barruan betiere. Oinarri arautzaileetan aukera ematen bada azpikontratatzeko eta ez bada muga kuantitatiborik jartzen, onuradunak ezingo du diruz lagundutako jardueraren %50 baino gehiago azpikontratatu, azpikontratu guztien prezioak batuta.

2. Diru-laguntzen Foru Arauaren 27.7.d) artikuluan ezartzen denerako, jarraian adieraziko diren egoeretako edozein gertatzen denean, pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarteekin lotura dagoela iritziko zaio. Egoerak hauek dira:

a) Ezkontza bidez lotutako pertsona fisikoak, edo antzeko maitasun-harremanek, laugarren maila arteko odol-ahaidetasunak edo bigarren maila arteko kidetasunak lotutako pertsonak.

b) Ordainketa periodikoen bidez ordaindutako lan-harremana duten pertsona fisikoak eta juridikoak.

c) Diru-laguntzen Foru Arauaren 10.2 artikuluan aipatzen den onuradunaren bazkideak eta artikulu bereko 3. paragrafoan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kideak edo partaideak.

d) Sozietate bat eta haren gehiengoa duten bazkideak edo haren kontseilariak edo administrariak, bai eta haien ezkontideak edo antzeko maitasun-harremanek, laugarren maila arteko odol-ahaidetasunak edo bigarren maila arteko kidetasunak lotutako pertsonak ere.

e) Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 4. artikuluaren arabera, talde bereko kide izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten sozietateak.

f) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko elkarteak eta haien legezko ordezkariak, patronoak edo haien administrazioa egiten dutenak, bai eta haien ezkontideak edo antzeko maitasun-harremanek, laugarren maila arteko odol-ahaidetasunak edo bigarren maila arteko kidetasunak lotutako pertsonak ere.

g) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko elkarteak eta legez edo estatutu bidez edo kontratuko hitzarmenen bidez lehenengo haien mozkinaren % 50aren baino gehiagoren gaineko partaidetza duten pertsona fisikoak, juridikoak edo nortasunik gabeko elkarteak.

3. Foru Administrazioak preskripzio-epearen barruan egiaztatu ahalko ditu azpikontratatutako jardueren kostua eta merkatu-balioa, erregelamendu honen 72. artikuluaren ezartzen denaren arabera.

II. KAPITULUA.
DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA

1. ATALA.
XEDAPEN OROKORRAK

54. artikulua. Diru-laguntza justifikatzeko modalitateak.

Onuradunak jarraian zehaztuko diren modalitateak izango ditu diru-laguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete eta aurrez ikusitako helburuak lortu dituela justifikatzeko, hain zuzen ere, hauek:

1. Justifikazio-kontua: kapitulu honen 2. atalean zehazten diren moduetako batekoa izan behar du.

2. Moduluen bidez egiaztatzea.

3. Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea.

55. artikulua. Justifikatzeko epea luzatzea.

1. Diru-laguntza ematen duen organoak justifikazioa aurkezteko ezarrita dagoen epea luzatzea erabaki dezake, baldin eta oinarri arautzaileetan horren kontrako ezer ezartzen ez bada; nolanahi ere, luzapen horrek ezin du epearen erdia baino luzeagoa izan eta luzapena emateak ez ditu hirugarrenen eskubideak kaltetu behar.

2. Luzapena emateko baldintzak eta prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluan ezarritakoak dira.

3. Justifikazioa egiteko epea igarota, ez bada justifikaziorik aurkeztu dagokion administrazio-organoaren aurrean, organoak onuradunari eskatuko dio hamabost (15) eguneko epean aurkez dezala, kapitulu honetan zehazten diren ondoreetarako. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada paragrafo honetan ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, Diru-laguntzen Foru Arauan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio. Nahiz eta justifikazioa paragrafo honetan adieraziko epe osagarriaren barruan aurkeztu, Diru-laguntzen Foru Arauaren arabera dagozkion zehapen guztiak ezarriko zaizkio onuradunari.

56. artikulua. Justifikatzeko era.

1. Diru-laguntzaren justifikazioaren egitura eta hedadura dagozkion oinarri arautzaileetan zehaztuko dira.

2. Diru-laguntza egiaztatzeko eskumena duen organoak ikusten badu onuradunak aurkeztutako justifikazioan zuzentzeko moduko akatsak daudela, horren berri emango dio onuradunari eta hamar eguneko epea emango dio haiek zuzentzeko.

2. ATALA.
JUSTIFIKAZIO-KONTUA

1. AZPIATALA.
JUSTIFIKAZIO-KONTUA; HORREKIN BATERA GASTUEN FROGAGIRIAK AURKEZTUTA

57. artikulua. Justifikazio kontuaren edukia.

Justifikazio-kontuak, oro har, honako agiri hauek jaso behar ditu:

1. Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek dituena:

   a) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Oinarri arautzaileetan aipatu behar da zein izan behar den sarrera- gastuen egoera-orri horren egitura.

   b) Aurreko a) idatz-zatian aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, diruz lagundutako jardueraren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Diru-laguntza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

   c) Aurreko idatz-zatian aipatutako zerrendan jaso diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak. Aurrekoa gorabehera, horiek guztiak ez aurkezteko salbuespena ezar dezake organo emaileak. Bada, horretarako, organo emaileak oinarri arautzaileetan edo deialdian zehaztuko du berak egoki iritzitako laginketa- teknikak aplikatuko direla frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horrela eginez gero, organo emaileak eskatu ahalko dio onuradunari bidaltzeko bailaginketan aukeratutako gastu-inbertsioen egiaztagiriak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiriak ere.

      Gastuen zerrenda sailkatuan langile propioen gastuak sartzen badira, egindako jardueretan parte hartu duten pertsonen ordutegi-parteak edo pareko egiaztagiriak aurkeztuko dira, jardueretan emandako denbora justifikatzeko, baita egoki diren bestelako agiriak ere.

   d) Aurreko a) idatz-zatian aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru- laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

   e) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau adierazten duena: proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak d) letran berariaz adierazitakoak direla.

   f) Ondasun higiezinen eskuratzea bada, tasatzaile independente batek emandako ziurtagiria: tasatzaile hori behar bezala egiaztatuta egon behar da eta dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egon behar du.

   g) Hala badagokio, b) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jaso diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adierazi behar dira. Ez da hori egin behar, baina, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan aurrez ikusi bada kostuok oroharreko prezioan konpentsatuko direla, inolako justifikazio beharrik gabe.

h) Diru-laguntzen Foru Arauaren 27.7 d) eta 29.3 artikuluak betetzeko, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak. Onuraduna Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen mende badago, araudi hori betetzen dela justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.

i) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere.

3. Aurrekoa gorabehera, diru-laguntzaren xedea edo izaera dela eta, organo emaileak irizten badio ez direla aurkeztu behar aurreko paragrafoan ezartzen diren agiri guztiak, oinarri arautzaileetan zehaztuko da justifikazio-kontuaren edukia.

58. artikulua. Gastu-frogagiriak baliozkotzea eta zigilatzea.

1. Gastuak frogatzeko, fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak erabiliko dira, jatorrizkoak edo haien fotokopia konpultsatuak, oinarri arautzaileetan edo deialdian besterik ezartzen ez bada.

2. Oinarri arautzaileetan horrela ezarriz gero, aurkeztutako jatorrizko frogagiriei zigilu bana jarriko zaie, eta bertan zehaztuko da zein diru-laguntza frogatzeko aurkeztu diren.

2. AZPIATALA. JUSTIFIKAZIO-KONTUA; HORREKIN BATERA AUDITOREAREN TXOSTENA AURKEZTUTA

59. artikulua. Justifikazio-kontua, eta, horrekin batera, auditorearen txostena aurkeztea.

1. Dirulaguntza arautzen duten oinarriek honako hauek aurreikusi ahal izango dituzte:

a) 57. artikuluan aipatzen den justifikazio-kontuarekin batera kontu-auditore baten txostena aurkezten bada, kontu-auditore horrek jarduneko auditore gisa egon behar du inskribatuta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren menpeko Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialean.

b) Kontu-auditoreak diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan finkatzen den hedadurarekin berrikusi behar du justifikazio-kontua, eta, horretarako, Foru Administrazioaren eremuan diru-laguntzen finantza-kontrolerako eskumenak esleituta dituen organoak jarduteko eta ikuskatzeko proposatzen dituen arauak bete behar ditu.

Ondorioz, kontu-auditorearen lanaren gaineko berrikusketa eta kalitate-kontrola egin ahalko da, Foru Administrazioko kontrol-organoak zehazten duen eran, eta kontu-auditoreak organo horren esku jarri behar du berak emandako txostenaren oinarri den informazio guztia.

2. Onuradunak Kontu Auditoretzari buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legearen mende dagoen auditore batek bere urteko kontuak auditatu behar baditu, justifikazio- kontua auditore berak berrikusiko du, oinarri arautzaileek beste auditore bat izendatzea aurreikusten dutenean izan ezik.

3. Onuradunak ez baditu bere urteko kontuak ikuskatzeko betebeharrik, berak izendatuko du kontu-auditorea, oinarri arautzaileetan ez bada ezartzen izendapen hori organo emaileak egin behar duenik. Justifikazio-kontuaren berrikusketak eragindako gastuak diruz lagundutako gastua izan daitezke, baldin eta horrela ezartzen bada oinarri arautzaileetan eta haietan zehazten den kopurua arte betiere.

4. Onuradunak kontu-auditorearen esku jarri behar ditu Diru-laguntzen Foru Arauaren 13.1.f) artikulua aplikatuz eskatu ahal zaizkion liburu, erregistro eta agiri guztiak. Onuradunaren betebeharra da, halaber, horiek guztiak zaintzea, foru arau horretan aurrez ikusten diren egiaztapen- eta kontrol-jardueretarako.

5. Diru-laguntzaren xedea atzerrian egingo den jarduera edo proiektu bat bada, erregelamenduko artikulu honetan eta 65. artikuluan aurrez ikusten den araubidea berrikusketa egin behar den herrialdean jardunean dauden kontu-auditoreei dagokiela ulertuko da, betiere herrialde horretan araubide bat badago lanbide horretan aritzeko gaitzen duena, eta, hala badagokio, nahitaezkoa bada onuradunaren kontabilitateko egoera-orriak ikuskatzea.

   Herrialde horretan ez badago kontu-auditorian aritzeko gaitzen duen araubiderik, herrialde horretan finkatutako kontu-auditore batek egin ahalko du artikulu honetan zehazten den berrikusketa, betiere auditore hori organo emaileak izendatzen badu, kalitate egokia bermatuko duten irizpide tekniko batzuk erabiliz.

3. AZPIATALA.
JUSTIFIKAZIO-KONTU ERRAZTUA

60. artikulua. Justifikazio-kontu erraztua.

1. Diru-laguntzen Foru Arauaren 28.2 artikuluan ezartzen denerako, 20.000 euro baino gutxiagoko zenbatekoarekin emandako diru-laguntzen kasuan, diru-laguntzok frogatzeko balio juridikoa duen agiria har daiteke artikulu honetan arautzen den justifikazio-kontutzat, betiere horrela ezartzen bada diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan.

2. Justifikazio-kontuak honako informazio hau jaso behar du:

   a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

   b) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Oinarri arautzaileetan aipatu behar da zein izan behar den sarrera-gastuen egoera-orri horren egitura.

   c) Aurreko a) idatz-zatian aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, jardueraren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Diru-laguntza hori aurrekontu estimatu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

   d) Hala badagokio, b) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jaso diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adierazi behar dira. Ez da hori egin behar, baina, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan aurrez ikusi bada kostuok oroharreko prezioan konpentsatuko direla, inolako justifikazio beharrik gabe.

   e) Aurreko b) idatz-zatian aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

   f) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere.

3. Organo emaileak berak egoki iritzitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horrela eginez gero, organo emaileak eskatu ahalko dio onuradunari bidaltzeko bai laginketan aukeratutako gastu-inbertsioen egiaztagiriak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiriak ere.

3. ATALA.
MODULUAK

61. artikulua. Moduluen aplikazio-eremua.

1. Diru-laguntzen oinarri arautzaileek ezarri ahalko dute diru-laguntzak moduluen bidez eman eta justifikatuko direla, honako baldintza hauek betetzen dituzten kasuetan, hain zuzen:

   a) Diruz laguntzeko jarduera edo hura egiteko behar diren baliabideak unitate fisikoetan neurgarriak izatea.

   b) Diruz laguntzeko jardueraren merkatu-balioaren ebidentzia edo erreferentzia egotea edo, hala badagokio, erabiliko diren baliabideen merkatu-balioarena.

   c) Moduluen zenbateko unitarioa (zati bat finkoa eta beste bat aldagarria, jardueraren mailaren araberakoa, izan ditzake) txosten tekniko arrazoitu batean oinarrituta zehaztea. Txosten horretan jasoko dira, hain zuzen ere, modulua zehazteko kontuan hartu diren aldagai tekniko, ekonomiko eta finantzarioak, diru-laguntzen xede den jarduera edo zerbitzua egiteko estimatutako batez besteko merkatu-balioetan oinarrituta.

2. Oinarri arautzaileek ezartzen badute diru-laguntzak moduluen bidez eman eta justifikatuko direla, moduluok zehaztea eta txosten tekniko prestatzea modu berezituan egin daiteke deialdi bakoitzerako.

62. artikulua. Moduluak eguneratzea eta berrikustea.

1. Diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan edo laguntzak emateko oinarrion ondoriozko aginduetan balio zehatzak onartzen badira aurrekontu-ekitaldi bat baino gehiagorako zenbatekoa izango duten moduluetarako, oinarrietan bertan adieraziko da moduluok nola eguneratuko diren, eta erregelamendu honen 61.1.c) artikuluan aipatzen den txosten teknikoan justifikatuko da.

2. Gerora gertatutako inguruabarrengatik aldatu egiten badira moduluak zehazteko eta eguneratzeko kontuan hartutako baldintza ekonomiko, finantzario edo teknikoak, haien zenbatekoa berrikustea onartuko du organo eskudunak, txosten tekniko baten bidez arrazoituta.

63. artikulua. Moduluen bidezko justifikazioa.

Oinarri arautzaileetan moduluen araubidea jasotzen bada, diru-laguntza justifikatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

2. Justifikatzeko txosten ekonomiko bat, gutxienez honako hauek jasotzen dituena:

   a) Onuradunak egiaztatu behar du zenbat unitate fisiko hartu diren modulutzat.

   b) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Gastu egozgarriak izango dira, hain zuzen ere, aurreko a) idatz-zatian aipatzen diren moduluak egiaztatzearen ondorioz sortutakoak.

   c) Diru-laguntzaren zenbatekoa, jarduera-txostenean kuantifikatutako jarduerak eta oinarri arautzaileetan, edo, hala badagokio, diru-laguntzak deitzeko aginduetan jasotako moduluak oinarri gisa erabiliz kalkulatutakoa.

   d) Aurreko b) idatz-zatian aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntza, laguntza,

sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

64. artikulua. Moduluen araubidean dauden onuradunen betebehar formalak.

Onuradunok ez dituzte liburuak, erregistroak eta kontabilitateari edo merkataritzari begira garrantzia duen agiriak aurkeztu behar, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan beren-beregi besterik ezartzen denean izan ezik.

4. ATALA.
KONTABILITATEKO EGOERA-ORRIAK AURKEZTEA

65. artikulua. Justifikazioa kontabilitateko egoera-orrien bidez egiteko kasuak.

1. Oinarri arautzaileetan, diru-laguntzaren justifikazioa kontabilitateko egoera-orrien bidez egin ahal izateko aukera ezar daiteke, hain zuzen ere, honako kasu hauetan:

   a) Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko behar den informazioa zuzenean ondoriozta badaiteke onuradunak nahitaez prestatu beharreko kontabilitateko informazioan jasotako finantzako egoera-orrietatik.

   b) Kontabilitateko informazio hori auditatu egin bada, onuradunaren antolamendu juridikoan aurrez ikusitako sistemaren arabera.

2. Artikulu honen 1. apartatuan deskribatutako informazioaz gain, oinarri arautzaileek kontu-auditoreak egindako txosten osagarri bat ematea aurreikusi ahal izango dute, Kontu Auditoretzari buruzko uztailaren 20ko 22/2015 Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 2/2021 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

3. Kontu-auditoria baten hedadura ez bada nahikotzat jotzen, oinarri arautzaileetan ezarriko da kontu-auditoreak zein berrikusketa osagarri egin beharko duen kontabilitate informazioan, diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarri gisa erabili ahal izateko. Kasu horretan, lan horren emaitzak artikulu honen 2. paragrafoan aipatzen den txosten osagarriari gehituko zaizkio; txosten horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu:

   a) Onuradunaren identifikazioa, bai eta kontu-auditorea izendatu duen organoarena ere.

   b) Diru-laguntzaren organo kudeatzailearen identifikazioa.

   c) Jasotako diru-laguntzaren identifikazioa: diru-laguntza emateko adierazi behar da, bai eta hura aldatzen duten geroagoko ebazpenak ere.

   d) Berrikusiko diren kontabilitateko egoera-orrien identifikazioa; orriok eranskin moduan gehituko zaizkio txostenari.

   e) Diru-laguntza arautzen duen erregelamendu honi eta gainerako araudiari buruzko erreferentzia.

   f) Kontu-auditoreak egindako berrikusketa-prozeduren xehetasunak; haien hedadura eta diru-laguntzaren aplikazio egokiari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko erabilitako laginketa-teknikak.

   g) Egindako egiaztatzeen emaitza; aipatu behar da ikusitako egitateetatik zeinek eragin lezakeen onuradunak ez betetzea arautegi aplikagarria edo diru-laguntza jasotzeko ezarrita dauden baldintzak. Hori guztia behar besteko xehetasun eta zehaztasunarekin egin behar da, organo kudeatzaileak horri buruzko erabakia hartu ahal dezan, eta beren-beregi aipatu behar dira diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egozgarriak zaizkion gastuak eta sarrerak.

Edozein arrazoi dela eta, kontu-auditoreak ezin izan baditu egin diruz lagundutako proiektua edo jarduera ondo betetzeari eta diru-laguntzari egoki aplikatzeari buruzko asetasuna lortzeko aukera emango zioten prozedura guztiak, egoera horren berri eman behar da, eta egoera horren ondorioz kontuan hartu ez den informazioa aipatu.

h) Txostena haren egile edo egileek sinatu behar dute, eta txostena ematen den eguna adierazi behar da.

Kontu-auditoreak jaso beharreko ordainsari osagarria diruz lagundutako gastua izan daiteke, oinarri arautzaileetan horrela ezartzen bada, eta haietan finkatzen den mugarekin.

5. ATALA.
DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA

66. artikulua. Diru-laguntzen justifikazioan bitarteko elektronikoak erabiltzea.

Diru-laguntzak justifikatzeko prozeduretan bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabil daitezke, baldin eta oinarri arautzaileetan horrelako bitartekoak onartu badira.

Horretarako, oinarri arautzaileetan bertan adierazi behar da zein diren bide elektroniko, informatiko edo telematikoa erabiliz bete daitezkeen izapideak, halakorik badago, bai eta zein diren erabil daitezkeen bitarteko elektronikoak eta komunikazio-sistemak; bitarteko eta sistema horiek ezartzen diren espezifikazioen araberakoak izan behar dute.

6. ATALA.
ERAKUNDE PUBLIKOEK JASOTAKO DIRU-LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

67. artikulua. Erakunde publikoek jasotako diru-laguntzen justifikazioa.

Foru Administrazioak erakunde publikoei Diru-laguntzen Foru Arauaren menpean ematen dizkien diru-laguntzak diru-laguntza bakoitzaren oinarri arautzaileetan ezartzen denaren arabera justifikatu behar dira.

III. KAPITULUA.
DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

68. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Gastu bat diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko, gastu hori benetan ordaindu dela ulertuko da diru-laguntza kobratzeko eskubidea hartzekodunei lagatzen zaienean, egindako gastuagatik, edo hartzekodunoi merkataritza-efektu bat ematen zaienean, finantza-erakunde batek edo aseguru-konpainia batek bermatutakoa.

   Edozein kasutan ere, jarduera burutu bada eta justifikatzeko epea amaitu bada, baina izandako gastuen zati bat bakarrik ordaindu bada, kobratzeko eskubidea galtzeari dagokionez, proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da.

2. Diru-laguntzen Foru Arauaren 29.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, hainbat eskaintza eskatu behar badira, baina eskaintza horiek aurkeztu ez badira edo adjudikazioa, justifikazio egokirik gabe, ekonomikoki mesedegarriena ez den eskaintzetako bati egin bazaio, ondasunaren edo zerbitzuaren peritu-tasazioa eskatu ahalko du organo emaileak, eta horrek eragindako gastuak onuradunaren konturakoak izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatzeko, honako bi balio hauetako txikiena hartuko da erreferentzia legez: onuradunak deklaratutakoa edo tasaziotik ateratzen den balioa.

3. Zeharkako kostuak diruz lagundutako jarduerari egozteko, eta egin beharreko azterketa ekonomikoak egin eta gero, oinarri arautzaileek ezarri ahalko dute kostu osoaren zein zati joko den jarduerari egozgarria zaion zeharkako kostutzat, eta, kasu horretan, ez da justifikazio osagarririk beharko kostuaren zati horretarako.

IV. KAPITULUA.
DIRU-LAGUNTZAK EGIAZTATZEA

69. artikulua. Diru-laguntzaren justifikazio egokia egiaztatzea.

1. Diru-laguntza ematen duen organoak diru-laguntzaren justifikazio dokumentala egiaztatuko du, oinarri arautzaileetan horretarako ezarri den metodoa jarraiki. Horretarako, onuradunak edo erakunde laguntzaileak nahitaez aurkeztu behar duten dokumentazioa berrikusiko du, eta hori guztia egiaztapen-akta batean jasota utziko du.

2. Diru-laguntza ordaintzen bada justifikazio-kontua -erregelamendu honen 57. artikuluan ezartzen dena- aurkeztu aurretik, diru-laguntza likidatzeko egiaztapen formalak honako agiri hauek bakarrik hartu ahalko ditu kontuan:

   a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.

   b) Diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarrera-gastuen egoera-orria. Oinarri arautzaileetan aipatu behar da zein izan behar den sarrera-gastuen egoera-orri horren egitura.

   c) Aurreko b) idatz-zatian aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, diruz lagundutako jardueraren gastuak eta/edo inbertsioak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Diru-laguntza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

   d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

   Aurreko 1. paragrafoaren kasuan, justifikazio-kontuaren parte diren fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak, horrelakorik badago, datorren lau urteetan egiaztatu beharko dira, lagin adierazgarri bat oinarri hartuta; nolanahi ere, erregelamendu honen 57.2.c) eta 60.3 artikuluan ezartzen diren berezitasunak aplikatu ahalko dira.

70. artikulua. Diru-laguntza eman ahal izateko eta hartaz gozatu ahal izateko gauzatu beharreko jarduera gauzatu eta bete beharreko helburua bete direla egiaztatzea.

1. Diru-laguntza ematen duen organoak jarduera-plan bat prestatu behar du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak gauzatu dituztela egiaztatzeko.

2. Plan horretan adierazi behar da diru-laguntza guzti-guztiak egiaztatu behar diren edo emandakoen lagin bat bakarrik; azken kasu horretan, egiaztatu beharrekoak aukeratzeko modua ere adierazi behar da. Gainera, planak jaso behar du zein diren egiaztatu beharreko alderdi nagusiak eta noiz egiaztatuko diren.

71. artikulua. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzeak diru-laguntza egiaztatzean dituen ondoreak.

1. Diru-laguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu aldaketak egon direla diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, funtsean aldatzen ez dituztenak diru-laguntzaren izaera edo helburuak, baina aldaketa horiek ebazpena aldatzea ekarri ahalko balute, Diru-laguntzen Foru Arauaren 16.2.h) artikuluan ezartzen denaren arabera, eta, gainera, ez bada aldaketa horiek guztiak onartzeko aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea bete, diru-laguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarren eskubideei.

2. Nahiz eta organo emaileak egiaztapen-egintzaren bidez onartu egindako aldaketak, onuradunari berdin-berdin ezarriko zaizkio Diru-laguntzen Foru Arauaren arabera dagozkion zehapenak.

72. artikulua. Azpikontratatutako jardueren kostua edo merkatu-balioa egiaztatzea.

1. Foru Administrazioak preskripzio-epearen barruan egiaztatu ahalko ditu azpikontratatutako jardueren kostua eta merkatu-balioa, Diru-laguntzen Foru Arauaren 30. artikuluan ematen zaizkion ahalmenak erabiliz; horretarako, honako bitarteko hauetako bat edo gehiago erabiliko ditu:

   a) Batez besteko merkatu-prezioak.

   b) Nazioko eta atzerriko merkatuetako kotizazioak.

   c) Zergen arloko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziatzat hartuta egindako balioestea.

   d) Administrazioko perituen irizpena.

   e) Peritu-tasazio kontrajarria.

   f) Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide.

2. Administrazioak egiaztatuko balioa oinarria izango da diru-laguntza kalkulatzeko, eta behar bezala arrazoituta eta erabilitako bitartekoak eta irizpideak adierazita jakinaraziko da, diru-laguntzaren likidazioa jasotzen duen egintzaren ebazpenarekin batera.

3. Onuradunak beti izango du peritu-tasazio kontrajarria sustatzeko aukera, balioak egiaztatzeko artikulu honen 1. paragrafoan aipatzen diren gainerako prozedurak zuzentzearren. Aukera hori, hain zuzen ere, Administrazioak aurreko paragrafoan jasotzen den ahalmena erabiliz emandako ebazpenaren aurka jar daitekeen lehenengo errekurtsoaren epearen barruan sustatu behar du.

   Peritu-tasazio kontrajarria eskatzen bada, eten egingo dira ebatzitako prozeduraren betearazpena eta haren aurkako errekurtsoa jartzeko epea.

4. Administrazioak egiaztatutako balioaren eta onuradunaren perituak egindako tasazioaren arteko aldea txikiagoa bada 120.000 euro eta Administraziok egiaztatutako balioaren % 10 baino, onuradunaren perituak egindako tasazioa izango da diru-laguntza kalkulatzeko oinarria. Handiagoa bada, aldiz, beste hirugarren peritu bat izendatu beharko da, arauz ezartzen diren baldintzen arabera.

   Onuradunaren perituaren zerbitzu-sariak onuradunak ordaindu behar ditu. Hirugarren perituak egindako tasazioa txikiagoa bada onuradunak justifikatutako balioa baino, peritu horren gastu guztiak onuradunak ordaindu beharko ditu; handiagoa bada, aldiz, gastuok Administrazioaren konturakoak izango dira.

   Hirugarren perituaren balorazioa izango da diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria.

73. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarria.

1. Erregelamendu honen 74.2 artikuluan jasotzen den kasuan, eta baloratu beharreko ondasun-eskubideen izaera kontuan hartuta, hirugarren peritu legez jarduteko prest dauden elkargokideen edo kideen zerrenda bat eskatuko dio Foru Administrazioak legez aitortutako kolegio, elkarte edo korporazio profesionalari. Elkargokide edo kidea zozketa publiko bidez hautatu eta gero, hurrengo izendapenak hurrenkera koerlatiboaren arabera egingo dira.

2. Hirugarren perituak eskatu ahalko du bere zerbitzu-sarien hornidura lana egiten hasi aurretik egitea. Horretarako, gordailua egin beharko da organo emaileak erabakitzen duen erakunde publikoan, 10 eguneko epean, eta alderdi bakoitzak hornidura horren % 50 ordaindu beharko du. Alderdietako batek ez badu egin beharreko gordailua egiten, beste alderdiaren perituak egindako balorazioa onartzen duela ulertuko da, balorazio bien arteko aldea edozein dela ere.

   Hirugarren perituak bere balorazioa Administrazioari ematen dionean, balorazio horren berri emango zaio onuradunari, eta zerbitzu-sariak ordaindu behar baditu, erregelamendu honen 72. artikuluan ezartzen denaren arabera, 15 eguneko epea emango zaio, baldintza hori bete duela justifikatzeko. Funtsen gordailua egin bada, aurreko paragrafoan ezartzen denaren arabera, funts horiek erabiltzeko baimena emango du organo emaileak.

   Zerbitzu-sariak Administrazioaren konturakoak direnean, onuradunak eskubidea izango du berak gordailuan utzitako zenbatekoa itzul diezaioten, bai eta gordailu horrek eragin dizkion gastuen ordaina jasotzeko ere.

V. KAPITULUA.
AURREKONTUA KUDEATZEKO PROZEDURA

74. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

1. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunak justifikatu behar du diru-laguntza emateko arrazoi den jarduera, proiektu, helburu edo jokaera egin, burutu, lortu edo hartu duela, diru-laguntzari buruzko arau erregulatzaileetan ezarritakoaren arabera. Justifikazio hori justifikatutako diru-laguntzaren zati proportzionalean egin behar du. Dena dela, ez du justifikazio hori egin beharko, baldin eta, diru-laguntzaren izaera kontuan hartuta, arau horietan ordainketa aurreratuak egiteko aukera jasotzen bada, Diru-laguntzen Foru Arauaren 31.4 artikuluan ezartzen denaren arabera. Hartzailea egoera jakin batean dagoela-eta ematen diren diru-laguntzen kasuan, justifikazio bakarra beharko da: delako egoera hori arau erregulatzaileetan ezartzen den edozein bitarteko baliatuz egiaztatzea.

2. Oro har, oinarri erregulatzaileetan besterik ezartzen ez bada, eta aurrekontuko diru-baliabideen arabera, zenbait kasutan ordainketa aurreratuak egingo dira, Diru-laguntzen Foru Arauaren 31.4 artikuluan zehazten diren modu eta baldintzetan, hain zuzen ere, honelako diru-laguntzak direnean: batetik, irabazizkoak ez diren erakundeei eta haien federazio, konfederazio edo elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak, gizarte-ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzeko xedea dutenak; bestetik, beste erakunde onuradun batzuei ematen zaizkien diru-laguntzak, behin-behinean ez dutelako diruz lagundutako jardueraren betearaztea finantzatzeko baliabide nahikorik.

3. Horretarako, diru-laguntza osoa edo haren zati bat ordaintzeko izapidetzen den espedienteari ziurtagiri bat erantsi behar zaio, diru-laguntzaren jarraipena egiteko ardura duen organoak emandakoa, non agerian utzi behar diren hauek:

   a) Ondoren ordainduko diren diru-laguntzen kasuan, diru-laguntzaren justifikazio partziala, zatikako ordainketak egiteko aukera badago, edo justifikazio osoa, berriz, zatikako ordainketak egiteko aukerarik ez badago.

   b) Ez dela ebazpenik eman Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan jasotzen diren egoeretako bat dela-eta diru-laguntza itzuli behar dela edo hura kobratzeko eskubidea galdu dela adierazteko.

   c) Diru-laguntza ematen duen organoak kautela-neurri legez ez duela erabaki diru-laguntza bera dela-eta onuradunaren edo erakunde laguntzailearen aldeko ordainketa-aginduak edo haiei ordaintzeko geratzen diren zenbatekoak atxikitzea.

4. Diru-laguntzen Foru Arauaren 31.5 artikuluan ezartzen denerako, onuradun edo erakunde laguntzaile izaera lortzeko baldintzei buruz erregelamendu honen atariko tituluaren II. kapituluko 2. atalean ezartzen den modu bera erabiliko da onuradunak zerga-betebeharrak

eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta ez dela zorduna diru-laguntza itzultzea bidezkoa dela dioen ebazpen baten ondorioz zorduna ez dela baloratzeko, eta egoera horiek egiaztatzeko modua ere arestian aipatutako atalean ezartzen dena izango da.

Ez da beste ziurtagirik aurkeztu behar diru-laguntza emateko ebazpenean aurkeztu zenak ez badu sei hilabeteko indarraldia gainditu.

75. artikulua. Diru-laguntza kobratzeko eskubidea galtzea.

1. Justifikatu beharrekoak justifikatu ezik, edo Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan zehazten diren arrazoietako bat gertatuz gero, diru-laguntza osoa edo haren zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

2. Diru-laguntza kobratzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedura Diru-laguntzen Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritakoa izango da.

76. artikulua. Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa.

Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena.

Deialdian argitu behar dira zein diren onuradunak itzulketa hori egiteko erabilgarri dituen bitartekoak.

Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Diru-laguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

III. TITULUA.
ITZULKETA

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

77. artikulua. Itzulketa, diru-laguntza ematerakoan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik .

1. Onuradunaren betebeharra da batetik, diru-laguntza emateko arrazoi izan diren jarduera, proiektu eta helburu guztiak egin, burutu eta lortzea; bestetik, diru-laguntza ematea ekarri zuren jokaera guztiak hartzea, eta, azkenik, diru-laguntza dela-eta hartutako konpromisoak betetzea. Bestela, diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharko du, diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

2. Diru-laguntza eman bada inbertsioak edo hainbat izaeratako gastuak finantzatzeko, diru-laguntza hori hura emateko ebazpenean adostutako banaketaren arabera betearazi behar da, eta, oinarri arautzaileetan edo diru-laguntza emateko ebazpenean besterik ezartzen ez bada, ezin dira kontzeptu batzuk besteekin konpentsatu.

3. Erregelamendu honen 27.1 artikuluan jasotzen diren kasuetan, itzulketa proportzionala egin beharko da, jardueraren benetako azken kostua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada.

78. artikulua. Itzulketa, justifikatzeko betebeharra ez betetzeagatik.

1. Justifikazioa aurkezteko emandako epea igaro bada, baina ez bada aurkeztu, onuradunak diru-laguntza itzuli behar duela erabakiko da, erregelamendu honen 56.2 artikuluan ezartzen den errekerimendua egin eta gero.

2. Justifikatzeko betebeharra ez dela bete ulertuko da, baldin eta Foru Administrazioak egiten dituen egiaztapeneko eta finantza-kontroleko jardueren barruan ikusten bada onuradunak egindako justifikazioan honako egoera hauetako bat gertatzen dela. Egoerak hauek dira:

   a) Ez badira sartu diru-laguntza, laguntza, sarrera eta baliabide guztiak, ez eta eskatzen den finantzaketa propioa ere, horrelakorik badago.

   b) Diruz lagundutako jarduerari ez dagozkion gastuak sartu badira, diruz laguntzekoa ez den kostua eragin dutenak, edo gastu horiek eragiketen errealitatea islatzen ez duten agirien bidez justifikatu badira.

3. Aurreko 2. paragrafoan ezartzen diren kasuetan, eta izan litezkeen erantzukizunak gorabehera, justifikatutakoaren gainetik jasotako diru-laguntzaren soberakina itzuli beharko da.

79. artikulua.-Itzulketa, jasotako finantzaketa publikoaren zabalkundea egiteko neurriak erabiltzeko betebeharra ez betetzeagatik.

Jasotako finantzaketa publikoaren zabalkundea egiteko neurriak erabiltzeko betebeharra ez betetzeagatik itzulketa egin beharko da, baldin eta onuradunak ez baditu hartzen oinarri arautzaileetan ezarritako neurriak, ez eta Administrazioak proposatutako ordezko neurriak ere. Ordezko neurriok erregelamendu honen 26.3 artikuluan ezartzen dira.

II. KAPITULUA.
ITZULTZEKO PROZEDURA

1. ATALA.
XEDAPEN OROKORRAK

80. artikulua. Arau orokorrak.

1. Itzulketa-prozedura hasteko erabakian adierazi behar da zerk eragin duen prozedura hori hastea, zein diren bete ez diren betebeharrak eta ez-betetze horrek diru-laguntzaren zein zenbatekori eragiten dion.

2. Erabaki hori onuradunari jakinaraziko zaio edo, horrelakorik badago, erakunde laguntzaileari, eta hamabost eguneko epea emango zaio, egokitzat jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko.

3. Diru-laguntzen Foru Arauaren 35. artikuluan ezartzen denaren arabera, itzulketa-prozedura hasteak eten egingo du Foru Administrazioak itzulketa eskatzeko duen preskripzio-epea.

4. Itzulketa-prozeduraren ebazpenean identifikatu egin behar da nork egin behar duen itzulketa, zein diren bete ez diren betebeharrak, Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan jasotzen diren arrazoietatik zein betetzen den itzulketa egin behar izateko eta zein den itzuli beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa. Ebazpen horrek, halaber, berandutze-interesen likidazioa jaso behar du.

5. Ebazpen hori interesdunari jakinaraziko zaio, eta eskatuko zaio itzulketa egitea, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudia onetsi zuen abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak ezartzen dituen epean eta moduan.

81. artikulua.-Foru Administrazioaren menpeko fundazioek eta Foru Administrazioari loturik edo haren menpeko zuzenbide publikoko erakundeek itzuli beharreko zenbatekoak.

Foru Administrazioaren menpeko fundazioek edo Foru Administrazioari loturik edo haren menpeko zuzenbide publikoko erakundeek itzultzeko erabakien ondorioz Foru Administrazioarekin dituzten zorrak azkendu ahalko dira edo haien zenbatekoa etorkizuneko

ordainketa-aginduetan kitatuz, edo zor horiek Foru Administrazioak dituen zor mugaeguneratu, likido eta galdagarriekin konpentsatuz.

2. ATALA.
ITZULKETA OGASUN ETA FINANTZA SAILAK PROPOSATUTA EGITEKO PROZEDURA

82. artikulua. Itzulketa-prozedura Ogasun eta Finantza Sailak proposatuta hastea.

1. Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoak diru-laguntzen finantza-kontrola egin ondoren emandako txostenean agerian uzten bada Diru-laguntzen Foru Arauaren 33. artikuluan itzulketa egiteko ezartzen diren arrazoietako bat gertatzen dela, eta itzulketa-prozedura hastea proposatu bada, foru arau horretako 46. artikuluan ezarritako baldintzetan; bada, orduan, organo kudeatzaileak erabaki beharko du itzulketa-prozedura hastea; bestela, prozedura hori hastearekin ados ez dagoela adierazi beharko du, diru-laguntzen finantza-kontrolari buruzko arautegi erregulatzailean ezarritakoaren arabera.

2. Prozedura hasteko erabakia hartzeko hilabeteko epea dago, txostena jasotzen denetik, eta txostenean bertan jaso behar da itzulketa hasteko proposamenaren edukia, Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoak landutakoa.

3. Erabaki hori onuradunari edo erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio. Era berean, itzulketa hasteko erabakia Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari ere jakinarazi behar zaio.

4. Diru-laguntzen Foru Arauaren 46. artikuluan ezartzen den hilabeteko epea igaro bada, baina ez bada itzulketa-prozedura hasi -erregelamendu honen 80. artikuluan zehazten diren baldintzetan-, edo, bestela, organo kudeatzaileak adierazi badu ez dagoela ados prozedura hori hastearekin, honako ondore hauek gertatuko dira:

   a) Automatikoki kenduko dira finantza-kontrolean zehar ezarritako kautela-neurriak.

   b) Preskripzioa ez da etentzat joko prozedura hasteko proposamenak eragindako finantza-kontroleko jarduerak egiteagatik.

   c) Organo kudeatzaileak berdin-berdin izango du itzulketa-prozedura hasteko betebeharra; nolanahi ere, erantzukizunak ere izan ditzake, betebeharra epearen barruan ez betetzeak prozedura hori hasteko eskubidearen preskripzioak dakartzanak, hain zuzen.

83. artikulua. Alegazioen tramitea.

1. Itzulketa-prozeduraren hasierari buruzko jakinarazpena jasotzen duenean, interesdunak aukera izango du egokitzat jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko, prozedura hastea eragin zuen finantza-kontroleko txostenean agerian utzi ziren egitateei buruzkoak.

2. Prozeduran ez dira kontuan hartuko kontrolpeko subjektuak aurkeztutako egitateak, agiriak edo alegazioak, baldin eta horiek guztiak finantza-kontrolean aurkezteko aukera izan arren, aurkeztu ez bazituen.

3. Finantza-kontrola amaitu bada kontrolpeko subjektuak oztopoak, aitzakiak edo eragozpenak jarri dituelako, edo kontrolari uko egin diolako, bakarrik onartuko dira egoera hori ez zela kontrolean zehar gertatu agerrarazteko diren alegazioak eta agiriak, eta behin finantza-kontrola amaituta ezin da laguntasun falta hori konpondu.

84. artikulua. Alegazioen balorazioa.

1. Onuradunak edo kontrolpeko subjektuak ez badute alegaziorik aurkezten, organo kudeatzaileak beste izapiderik egin behar izan gabe ebatziko ahalko du itzulketa-prozedura, prozedura hasteko erabakian jasotako baldintza berberetan eta ez dio horren berri eman

beharko Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari, hurrengo artikuluan aipatzen den itzulketa-txostena egin dezan.

2. Alegaziorik aurkezten badu, berriz, organo kudeatzaileak iritzia eman behar du, eta adierazi behar du bere aburuz zein den itzultzeko eskatu beharreko zenbatekoa. Gainera, organo horrek finkatutako zenbatekoa ez bada hasieran eskatutakoa, erabaki hori hartzeko izan dituen arrazoiak azaldu beharko ditu.

85. artikulua. Itzulketa-txostena.

1. Diru-laguntzen finantza-kontroleko txostena eman duen kontrol-organoak aztertu egingo ditu onuradunak aurkeztutako alegazioak eta organo kudeatzailearen iritzia, eta, horren ondorioz, organo kudeatzaileak itzulketa-txostena emango du.

2. Txostena emateko hilabeteko epea dago, agiri guztiak jasotzen direnetik zenbatuta. Txosten horren abiapuntua finantza-kontroleko txostena, edo, halakorik badago, adierazitako desadostasunari buruzko ebazpena. Txostenean, aurkeztutako alegazioak eta organo kudeatzailearen iritzia baloratuko dira, eta, amaitzeko, eskatu beharreko itzulketaren zenbatekoa finkatuko da.

86. artikulua. Itzulketa-prozedura ebazteko proposamena.

1. Ebazpen-proposamenak osorik jaso behar du itzulketa-txostenaren edukia.

2. Organo kudeatzailea bat ez badator itzulketa-txostenean islatutako irizpidearekin, ebazpena eman aurretik agertu beharko du desadostasun hori. Desadostasuna ebazteko aplikatu beharreko prozedura 140. artikuluan jasotzen du Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginak, zeina abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak onesten baitu.

87. artikulua. Itzulketa-prozedura ebaztea.

1. Itzulketa-prozedura ebazteko araubidea Diru-laguntzen Foru Arauaren 37. eta 38. artikuluetan zehazten denaren araberakoa izango da.

2. Ebazpena eman ondoren, eta ebazpen hori interesdunari jakinarazten zaion une berean, organo kudeatzaileak haren berri emango dio Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari.

3. Diru-laguntzen Foru Arauaren 46. artikuluaren 5. paragrafoko bigarren lerrokadan ezartzen denerako, kontrol-organoak itzulketa-espedienteen izapidetzearen egoerari buruzko informazioa eskatu ahalko dio kudeatzaileari.

IV. TITULUA.
ZEHATZEKO PROZEDURA

88. artikulua. Zehatzeko prozedura.

1. Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 61. artikuluan aipatzen den administrazio- prozedura zehatzailea Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean araututakoa izango da, foru arau horretan eta erregelamendu honetan jasotako berezitasunekin.

2. Zehapen-prozedura ofizioz hasiko da, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 61.2 artikuluan eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 35. artikuluan aurreikusitako jarduketen ondorioz. Finantza- kontroleko organoak, datorren artikuluan zehazten den moduan, eta organo eta erakunde laguntzaileek beren eginkizunak betetzerakoan arau-haustea izan litezkeen egitateak ezagutzen badituzte, horien berri eman behar diete zehapenak ezartzeko organo eskudunei. Komunikazioetan,

arau-haustea kalifikatzeko garrantzitsutzat jotzen diren inguruabarrak jaso behar dira, eta eskura dauden frogabideak eman.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 77.5 artikuluan aurreikusitako baldintzetan froga-balioa duten dokumentu publikotzat jotzen dira Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 45. artikuluan aipatzen diren finantza-kontroleko jarduketak dokumentatzen dituzten eginbide eta txostenak.

89. artikulua. Zehatzeko prozedura Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoak proposatuta izapidetzea.

1. Finantza-kontrolaren ondorioz Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoak zehatzeko prozedura hasteko proposamena egiten badu, organo eskudunak zehatzeko prozedura abiaraziko du, proposamen horretan helarazitako egitateak direla eta. Prozedura abiarazten ez badu, berriz, organo eskudunak kontrol-organoari jakinarazi behar dio zergatik uste duen ez dela egokia prozedura abiaraztea.

2. Interesdunak alegazioak aurkezten baditu, organo instrukzio-egileak txostena eskatu behar dio Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari. Txosten hori nahitaezkoa eta erabakigarria da prozedura ebazteko, Euskal Administrazio Publikoen Zehatzeko Ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 38. artikuluan jasotzen diren ondoreetarako.

3. Ebazteko organo eskudunak erabakitzen badu, prozedura ebazteko fasean zehar, jarduera osagarriak egin behar direla, jardueren emaitzaren berri emango dio Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari.

   Kasu horretan, Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoak beste txosten bat eman ahalko du. Ez badu beste txostenik ematen, ulertuko da aurreko paragrafoan aipatzen den txostenean jasotakoa mantentzen duela.

4. Artikulu honetan aipatzen diren txostenak Ogasun eta Finantza Saileko kontrol- organoak eman behar ditu, hilabeteko epean.

5. Zehatzeko prozeduraren ebazpena Ogasun eta Finantza Saileko kontrol-organoari jakinarazi behar dio organo eskudunak, hau da, zehatzeko prozeduraren instrukzio- egileak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria. Foru Administrazioak enpresa-sektore publikoe zein Foru Administrazioaren menpeko fundazioei egindako diru-ekarpenen araubide juridikoa.

1. Foru Administrazioak enpresa-erakunde publikoei, merkataritzako foru sozietateei eta Foru Administrazioaren menpeko fundazioei haiek finantzatzeko diru-ekarpenak egitea jasotzen duen tresna juridikoan, gutxienez, honako gai hauei buruzko klausulak jasoko dira:

   a) Ekarpena egitea justifikatzen duten arrazoiak.

   b) Ekarpenaren definizioa; ekarpenaren izaera adierazi behar da, bai eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak.

   c) Ustiapen ekonomikoak pertsonal, errentagarritasun, produktibitate edo berregituratze teknikoari dagokienez dituen helburuak, bai eta haien ebaluatzeko adierazle bidezko metodoak ere.

   d) Modalitate bakoitzean Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuaren kargura egingo diren ekarpenak.

   e) Adostutako helburuak kasuan kasuko ingurune ekonomikoan gertatutako aldaketei egokitzeko erabili beharreko metodoak.

f) Adostutako konpromisoak ez betetzeak ekarriko dituen ondoreak.

g) Tresna juridikoa egiteari eta haren aplikazioaren ondoriozko emaitzei dagokienez Ogasun eta Finantza Sailak egingo duen kontrola.

Dagokion ustiapeneko eta kapitaleko zein urte askotarako jarduera-programaren aurrekontua prestatu beharko da. Horrez gain, betiere, zehaztu egingo da entitateak nola justifikatuko dituen garatutako jarduerak eta jasotako funtsen aplikazioa.

2. Dagokion tresna juridikoaren edukiak aurreko 1. paragrafoan zehazten diren gaiak jaso behar ditu, baina, hitzarmenaren xedea kontuan hartuta, ez bada beharrezkoa horietakoren bat bertan jasotzea, ez da jaso beharko.

3. Enpresa-erakunde publikoek, merkataritzako foru sozietateek eta Foru Administrazioaren menpeko fundazioek ez badituzte hartu dituzten konpromisoak betetzen, aipatutako tresna juridikoan zehazten diren doikuntzak eta zuzenketak egingo dira.

4. Ogasun eta Finantza Sailak egiaztatu behar du Tresna juridikoa ondo eta egoki egin den eta haren aplikazioak zein ondorio izan dituen, eta, horretarako, aplikatzekoa den aurrekontuei buruzko foru araudian ezartzen den kontrol-araubidea jarraitu behar du.

   Kontrol hori gorabehera, dagokion tresna juridikoa izenpetu duten erakundeen nagusi diren sailek edo erakundeek ere kontrola egin ahalko dute.

Bigarren Xedapen Gehigarria. Kontu-auditoreak erregistratzea Bizkaiko Foru Aldundian.

Kontu-auditoreak (erregelamendu honen 59. artikuluan aipatzen dira) izendatzeko prozedura erraztearren, Bizkaiko Foru Aldundiko kontrol-organoak kontu-auditoreen erregistro bat sortu ahalko du. Erregistro horretan, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren menpeko Kontuen Auditoreen Errolda Ofizialean jarduneko auditore gisa inskribatuta dauden profesional guztiek eman ahalko dute izena, hala eskatzen badute eta artikulu horretako 1.b) paragrafoan jasotzen diren arauak betetzeko konpromisoa hartzen badute.

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Foru administrazioak beste administrazio batzuei zein haiei lotutako edo haien menpeko zuzenbide publikoko erakundeei emandako diru-laguntzak justifikatzea.

Foru administrazioak beste administrazio batzuei zein haiei lotutako edo haien menpeko zuzenbide publikoko erakundeei emandako diru-laguntzen kasuan, erakunde horiek diru-laguntza jaso duen organoaren titularrak emandako ziurtagiri bat erabili ahal izango dute, jarduera egin dela eta diru-laguntzaren xedea bete dela egiaztatzen duena, Foru Administraziotik jaso dituzten laguntzak justifikatzeko. Halaber, Kontu-hartzailetzak edo beste administrazioetako kontrol-organo baliokideak emandako txostenak egiaztatu ahalko du diru-laguntza justifikatzeko agiriak benetakoak eta zuzenak direla.

Laugarren Xedapen Gehigarria. Alderdi politikoentzako diru-laguntzen araubide berezia.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan jasota daudelako Foru Administrazioak urtero ematen dituen diru-laguntzak Gobernu kontseiluaren erabakia behar dute diru-laguntzok ematea baimendu ahal izateko. Baimen horrek ez du ekarriko gastua onartzea: gastu hori onartzea beti dagokio diru-laguntza emateko organo eskudunari.

Ezin da diru-laguntza ordaindu alderdi politikoak egiaztatzen ez duen arte egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Foru Administrazioak hiru hilean behin argitaratuko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein diren epe bakoitzean alderdi politikoei emandako diru-laguntzak; bertan, honakoak adieraziko ditu: diru-laguntza bakoitza zein aurrekontu-programa eta -kredituri egotziko zaion eta zein den erakunde onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren helburua.

Bosgarren Xedapen Gehigarria. Espedienteen izapidetze elektronikoa.

...

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra.

Erregelamendu hau aplikatuko zae erregelamendua indarrean jartzen denean izapidetzen dauden diru-laguntzak emateko prozedurei.